

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Bizkaiko Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra:
II. Atala - Enpresa-Sektore Publikoa**

**Cuenta General del Territorio Histórico
de Bizkaia:
Tomo II - Sector Público Empresarial**

2010





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	10
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	10
II.2 Kontuen gaineko iritzia	11
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	12
III.1 Aurrekontua	12
III.2 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa	13
III.3 Langileen gastuak.....	14
IV. ENPRESA SEKTORE PUBLIKOAREN ALDERDI FINANTZARIOAK	15
V. ENPRESA SEKTORE PUBLIKOAREN KONTUAK	17
V.1 Foru Enpresen Erakunde Publikoen Kontuak	17
V.2 Merkataritzako Sozietate Foralen kontuak	18
ALEGAZIOAK	25
ABREVIATURAS	43
I. INTRODUCCIÓN	45
II. OPINIÓN	48
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	48
II.2 Opinión sobre las Cuentas	49
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	50
III.1 Presupuesto	50
III.2 Contratación de bienes y servicios	51
III.3 Gastos de personal	53
IV. ASPECTOS FINANCIEROS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL	54



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. CUENTAS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL	56
V.1 Cuentas de las Entidades Públicas Empresariales Forales	56
V.2 Cuentas de las Sociedades Mercantiles Forales.....	57
ANEXOS	63
A.1 Inmovilizado intangible e inmovilizaciones materiales.....	63
A.2 Inversiones inmobiliarias	65
A.3 Inversiones en empresas del grupo y asociadas a largo plazo	66
A.4 Inversiones financieras a largo plazo	68
A.5 Existencias	69
A.6 Fondos propios	73
A.7 Subvenciones, donaciones y legados recibidos.....	75
A.8 Provisiones a largo plazo.....	75
A.9 Otras deudas a corto plazo y acreedores comerciales.....	76
A.10 Endeudamiento y gastos financieros.....	78
A.11 Avaluos.....	79
A.12 Gastos de personal	80
A.13 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación	81
A.14 Ingresos de explotación	83
A.15 Análisis de contratación	85
ALEGACIONES	89

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 19a

Vitoria-Gasteiz, 19 de abril de 2012



LABURDURAK

BBA	Bizkaiko Berrikuntza Agentzia, AB
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
BTE	Bizkaiko Tutoretza Erakundea
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
ELA	Estatuko Loteriak eta Apustuak
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
FA	Foru Araua
AKPP	Administrazio Klausula Partikularren Plegua
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2011rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraiki, Bizkaiko Lurralde Historikoaren (aurrerantzean, BLH) 2010eko ekitaldiaren Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra honako kontu hauek osatzen dute: Bizkaiko Foru Aldundiaren kontuek (aurrerantzean BFA), foru erakunde autonomoen kontuek, foru enpresen erakunde publikoen kontuek eta foru elkarte merkataritzakoen kontuek. Aurrekontuen 5/2006 Foru Arau Orokorrak bi ataletan bereizten du foru sektore publikoa: administrazio sektore publikoa batetik (Bizkaiko Foru Aldundia eta foru erakunde autonomoak) eta enpresa sektore publikoa bestetik (foru enpresen erakunde publikoak eta merkataritzako foru sozietateak); hori dela eta, HKEEk fiskalizazio txostena bi ataletan egituratu du: I, administrazio sektore publikoari dagokiona eta II, enpresa sektore publikoarentzat.

BLHren Kontu Orokorren fiskalizazio txostenaren atal honek -Enpresa Sektore Publiko-ondoko alderdiak besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketak eta zerbitzuak, diru-laguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu. Enpresen Sektorea osatzen duten erakunde eta sozietate guztiek euren kontuei dagokienez, kanpoko enpresek egindako finantza-auditoriako eta aurrekontua betetzeari buruzko txostenak bideratu dituzte.
- Enpresa Sektore Publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhertasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

BLHren Enpresa Sektore Publikoa honako hauek osatzen dute:

- Enpresa-erakunde publikoak:
 - Estatuaren Loteriak eta Apustuak, Bizkaiko Merkataritza Ordezkaritza (aurrerantzean ELA): Bizkaian Estatuaren Loteria eta Apustu Erakunde Nazionalaren ordezkaritza duen merkataritzako erakunde autonomoa da.
 - Bizkaiko Tutoretza Erakundea: BLHn bizi diren legez ezgaitutako zaharren tutoretza egiteko ardura, eta aldundiak tutoretzapean dituen adingabeen ondasunak administratzeko ardura du.

- Foru Merkataritza Sozietateen Kontuak:

Sozietatea	Partaidetza	Sozietatearen helburua
	%	
1. Aparkabisa, S.A.	79,48	Garraio zentroa eta kamioen aparkalekua.
2. Azpiegiturak, S.A.	100	Era guztietako azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea.
3. Basalan, S.A.	100	Basoko lanak eta natura zaintzeko lanak egitea.
4. BEAZ, S.A.	100	Industria diseinuaren arloan enpresei zerbitzu egitea eta, berrikuntza politikak taxutu eta ezartzearen, Bizkaiko Foru Aldundiari aholku eman eta laguntzea.
5. Euskalduna Jauregia, S.A.	100	Musika eta kongresu jauregia eraikitzea eta kudeatzea.
6. Garbiker, S.A.	100	Hondakin solidoak tratatzea.
7. Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, S.A.	100	Bide azpiegituren azterlan eta proiektuak egin, eraiki eta kontserbatzea.(Interbiak)
8. Lantik, S.A.	100	Foru administrazioaren informatika zerbitzuak.
9. Rekaldeko Erakusketa Aretoa, S.L.	100	Erakusketa aretoa eta artearen zabalkundea kudeatzea.
10. SEED Capital de Bizkaia, S.A.	50,64	Arrisku kapitaleko funtsak eta ondareak kudeatzea.
11. Zugaztel, S.A.	100	Grabazioa, eskaneatzea eta call center-a.

Azpiegiturak, S.A. BFaren pertsonabakarreko Sozietate Publikoa da, 2010eko uztailaren 6an abian jarri zena, ondotik zehaztutako sozietateek bat egin eta desagertu izanaren ondorioz:

Sozietatea	Partaidetza	Sozietatearen helburua
	%	
Azpiegitura, S.A.	100	Enpresa guneak sortzea eta kudeatzea.
Bideak-Bizkaiko Bideak, S.A.	100	Azpiegiturak proiektatzea, eraikitzea, zaintzea eta ustiatzea.
Bizkailur, S.A.	100	Industriarako lurzorua, etxebizitza eta zerbitzuak sustatzea.
Kirolgintzan, S.A.	100	Kirol, aisia edo kultura jardueretarako azpiegiturak planifikatu, proiektatu, eraiki, mantendu eta ustiatzea.

2010eko uztailaren 6an dagozkien batzar nagusiek onetsi dute ondoko sozietateak menderakuntza bidez fusionatzea; ondorioak 2009ko abenduaren 31tik aurrera sortuko dituzte: Bizkaiko Berrikuntza Agentzia, AB (BAI) eta Beaz, S.A.; Beaz, S.A. da sozietate menderatzailea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Abenduaren 22ko 5/2010 FAren bitartez BizkaiKOA izeneko foru enpresen erakunde pribatua sortu zen, museoak kudeatzeko erakunde modura. Berebat, aipatu FAn aurreikusitakoa betez, 2011ko uztailaren 1ean Rekalde Erakusketa Aretoa, S.L. desegin zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Enpresa-erakunde publikoek eta foru-sozietate publikoek langile finkoen hautaketa egiteko enpresa espezializatuak kontratatzen dituzte, eta haiek deialdiaren publizitatea egiten dute eta hautagaien azken zerrenda proposatzen dute, puntuka antolatuta. Sozietateek enpresa kontratatuei ez diete exijitzen hautagaiak aukeratzeko berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzak bete dituztela ziurtatzeko frogarik, eta, ondorioz, ezin izan da egiaztatu printzipio horiek bete diren. 2010eko ekitaldian egindako kontratazio finkoak honakoak izan dira:

SOZIETATEA	Langileak
Azpiegitura, S.A.	1
Beaz, S.A.	1
Garbiker, S.A.	(*)9
Lantik, S.A.	1

(*): 4 denbora partzalean dauden langile finkoak dira

ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kirolgintzan, S.A.

2. Sozietateak zuzenean bideo-markagailu bat erosi du Miribillako kiroldegirako, 377.000 euroan. Erosketa esparru horretan lan egiten duen kirol sozietate bati erosi dio zuzenean; beraz, ez ditu bete publizitatearen eta lehiaren printzipioak.

Lantik, S.A.

3. Sozietateak bere egoitza dagoen eraikinaren beheko solairuan eta lehenengo solairuan erreforma obrak egin ditu, 230.734 eurotan guztira, zortzi hirugarrenekin kontratatuta. Kontratuaren xedea behar ez bezala zatitu da, eta SPKLaren 74.2 artikuluan ezarritakoa ez da bete.

Epaitegi honen ustetan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Azpiegiturak, S.A.

1. Sozietatearen memoriak ez du eman egoera-balantzearen aktibo hauetan eragina duten zalantzei buruzko informaziorik:
 - 138,2 milioi euroko balioa daukaten izakinak. Haien egitea eraikuntza eta higiezin sektoreen krisiaren mende dago (A.5.1 eranskina).
 - 2006an 15 milioi euroren zenbatekoarekin erositako ibilgetuko inbertsioak eta erosketa une berean saltzaileari hileko euro baten prezioan alokatuak; eragiketa hau hainbat baldintza betetzeari meneratzen zaio eta aktiboak gauzatzeko aukerak mugaketak ditu (ikus A.2.2).
 - Epe luzeko kredituak, taldeko enpresei eta sozietatean elkarturikoei emanak eta 2010eko ekitaldian ixtean 7,3 milioi euroko saldoa dutenak. Diru hori berreskuratzeko itxaropenik ez dago (A.3.1). Gainera, aurreko ekitaldian abalak egin dira taldeko enpresen alde, 2010eko ekitaldia ixtean 4,1 milioi euroko saldoa zutenak eta exekuzio arriskua dutenak (A.11 eranskina).
2. Iritziari eragin gabe, Sozietatea 2010eko uztailaren 6an eratu zen, Azpiegitura, S.A., Bideak-Bizkaiko Bideak, S.A., Kirolgintzan, S.A. eta Bizkailur, S.A. foru enpresa publikoak batu izanaren ondorioz. 2010eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuek finantza eta ondare egoeran erregistratutako mugimenduak jasotzen dituzte; baita eragiketen emaitzak eta data hori eta 2010eko abenduaren 31 bitartean igarotako aldiaren berak gauzatatutako eskudiruzko fluxuak ere.

Beaz, S.A.

3. Iritziari eragin gabe, 2010eko uztailaren 6an Bizkaiko Berrikuntza Agentzia, AB -% 100 BFAREN jabetzako sozietate dena- menderakuntza bidez fusionatu da Beaz, S.A.rekin. Horren ondorioz, 2010eko ekitaldi ekonomiko honetako kontuetan jaso diren zifrak ezin aldera daitezke aurreko ekitaldikoekin; bada, Egoera Balantzearen Aktiboa eta Pasiboa 10,5 milioi euroren zenbatekoan igo dira eta Galera-Irabazien Kontuan, berriz, 2,8 milioi euroren galerak jaso dira.

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan azaldutako salbuespena kenduta, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta sozietate guztien urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakutsi dute 2010eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, bai eta ondarearen eta ekitaldi itxieran finantza egoeraren irudi leiala ere.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA

- Ondoko sozietate hauek izaera mugagarria duten aurrekontuko kontsignazioak gainditu dituzte, 5/2006 Foru Arauaren 83.2 artikulua ezartzen dituenak:

AURREKONTUKO KONTSIGNAZIOAREKIKO SOBERAKINA		Euroak milakotan
SOZIETATEA	Kontu-saila:	Zenbatekoa
Azpiegiturak, S.A.....	Ibilgetu materiala	3.415
Lantik, S.A.....	Ibilgetu ukiezina	120

Azpiegiturak, S.A.ren ibilgetu materialaren desbideratzea, 3,4 milioi eurokoa, Gatican lurrak eta pabiloiak eskuratzearen ondorio da. Erosketa horren prezioa 6,1 milioi eurokoa da. Eskuraketa hori 2009ko abuztuko erabaki baten ondorioz egin da. Ez zegoen aurreikusita 2010eko ekitaldiko aurrekontuetako ibilgetu materialeko inbertsioen kapitulan sartzea, industriako lurzoruen izakinetan sartzea aurreikusi baitzen; azken kapitulu hori ez dago aurrekontu mugaketen mende.

Azkenik, aipatutako pabiloiak 2 urtez eman dira errentan. Kontratua pabiloiak eskuratu diren egun berean egin da, hilean 23.100 euroan, gehi BEZ.

- Interbiak, S.A.ren aurrekontuan barne hartutako Txostenak ekitaldian gauzatuko diren inbertsioak zehazten ditu eta inbertsio guztien exekuzio-aurreikuspena osotasunean 371,2 milioi euroan kuantifikatzen du; alabaina, ez dago aurrekontuan hainbat urtetan egingo diren inbertsioei buruzko eranskinik, aurrekontuen edukia arautzen duen Aurrekontuei buruzko 5/2006 FA Orokorren 39.2 artikulua agintzen duen moduan. Abian dauden Interbiak, S.A.ren obra guztiek dute hainbat urtetarako proiektzioa; honela, bada, 2009ko ekitaldiaren Kontu Orokorak jakinarazi du ekitaldi itxieran Sozietateak 520 milioi euroren inbertsio konpromisoak dituela. Gure iritzira, konpromiso horiek 2010eko ekitaldian izaera urteanitzarekin sortzea aurreikusten denarekin batera, eranskin batean jaso behar ziratekeen 2010eko ekitaldiko aurrekontuetan.
- 2010eko ekitaldian zehar, Lantik S.A.k 6,5 milioi euroren diru-laguntzak jaso ditu BFAtik, bai inbertsioetarako, bai proiektuetara atxikitako langileen gastuetarako ere. Ordea, inbertsioek eta langile gastuek 4 milioi euro egin dituzte eta honenbestez, Lantik, S.A.k 2011ko ekitaldian justifikatu diren 2,5 milioi euro jaso ditu.



III.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

III.2.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Enpresa Sektore Publikoaren erakunde eta sozietateek izapidetutako espedienteak aztertzetik (ikus A.15) honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

Alderdi orokorrak

- Enpresa Sektore Publikoaren erakunde eta sozietate guztietan, Interbiak, S.A.n eta Lantik, S.A.n salbuetsita, kontratugilearen profila euskarritzen duen sistema informatikoa ez du bertan jasotako informazioaren hedapen publikoa noiz hasten den modu frogagarrian egiaztatze bide emango duen baliabiderik.

Bizkailur, S.A.

- Etxebizitzak eraikitze eta horien urbanizazioa egiteko lau espedientetan, Bizkailur, S.A.k 13 milioi euroan (BEZ barne) esleitu dituenak, pleguek ez dauzkate adjudikazio proposamenean erabiltzen diren azpi-irizpideak.
- Balmasedako UR-1 Arla sektore industrial urbanizatzeko obrak, 2009. urtean Bizkailur, S.A.k adjudikatu zituen 6,4 milioi euroan eta 458.398 euroren exekuzioa izan dute. Obra hauek 2009ko irailaren 21az geroztik etenda daude; egun horretan jaso baitzen Eusko Jaurlaritzaren jakinarazpen formala, UR-1 Arla urbanizatzeko obrak eten behar zirela adieraziz, beharrezkoak diren lizentziak izapidetu ez zirelako.

Interbiak, S.A.

- 2010ean Metropoli Hegoaldeko Saihesbideko zortzi kontraturi zegozkien lanak amaitu ziren, 593,4 milioi euroan esleitutakoak eta betetzeko epea 28 eta 35 hilabete bitartekoa zutenak. Lan horiek 2 eta 7 hilabete bitarteko atzeraldiarekin hartu dira.

Zugaztel, S.A.

- Guztira 2,5 milioi euroren zenbatekoa egin duten bi kontraturen behin-betiko esleipenean, horretarako eskumena duen kontratazio atalak ez du esleipen ebazpena egin, nahiz honek kontratua izenpetu duen.

III.2.2 BESTELAKOAK

Hona hemen ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez azaleratu diren beste alderdi batzuk:

- Garbiker, S.A.k, 2010eko ekitaldian, 1999. eta 2003. urteen artean sinatutako hamar kontratu dauzka. Honek, bada, kontratazio araudian aurreikusten den gehieneko epea (lau urtekoa) gainditzen du. 2010eko ekitaldian kontratu hauek egindako gastua 1,4 milioi eurokoa izan da (2,6 milioi eurokoa izan zen 2009ko ekitaldian), eta honako hauei egiten die erreferentzia, nagusiki: pneumatikoak aldatzea eta kautxutzea, makineria eta kamioen



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

konponketak, ibilgailu eta punpen mantentze-lanak eta pinturak garbitu eta tratatzea. Sozietateak honelako kontratuak murrizten segitu behar du, 2010ean egin duen modu berean.

- Interbiak, S.A. 2002 eta 2006az geroztik telefonia kontratu bat eta garbiketako beste bat luzatzen ari da, 2010eko ekitaldian, hurrenez hurren, 66.153 eta 36.580 euroren gastua eragin dutela; ez dira, ordea, dagozkion luzapenak onetsi.
- Ondotik zehaztutako sozietateek ondotik adierazitako kontratazioak gauzatu dituzte modu zuzenean; ordea, zenbateko horietan barne hartutako kontzeptuen tamaina eta izaera homogenea aintzat hartuta, eskaintzak egiteko eskariak eskatu zitezkeen, nahiz aleko prezioetan izan, baldin eta ekitaldi hasieran erosteko aurreikuspenak ez ziren zehaztasunez ezagutzen:

		Euroak milakotan
SOZIETATEA	Kontratua	
Azpiegiturak, S.A.	Telefono-zerbitzua	84
Basalan, S.A.	Makina txikiak eta ordezko piezak hornitzea (10 hirugarren)	368
	Erregaiaren hornidura (2 hirugarren)	132
	Landareen hornidura	39
	Produktu fitosanitarioen hornidura	32
Lantik, S.A.	Aholkularitza juridikoa	52
	Aholkularitza juridikoa	31
	Aurre-erretiro planen azterketa	29
Interbiak, S.A.	Bidesariak itzultzeko txostena egitea	56
	Komunikazio zerbitzuak	112

III.3 LANGILEEN GASTUAK

Antzinatasuna

- Ondoko enpresa-erakunde publikoak eta foru merkataritza-sozietateek ez diote soldata-murrizketa aplikatu antzinatasunari: Bizkaiko Tutoretza Erakundea, Aparkabisa, S.A., Azpiegiturak, S.A., Basalan, S.A., Beaz, S.A., eta Garbiker, S.A.k.
- Antzinatasun kontzeptuari aplikatu zaizkion soldata-murrizketak, arestian adierazi ditugunak, Aparkabisa, S.A.n antzinatasun kontzeptuaz egin diren aplikazioei batuz gero, 2007ko soldataren %3,5 da antzinatasun kontzeptua hiru urteko bakoitzarentzat. Eta Garbiker, S.A.n bi urtekoak ordaintzen dira (gehienez hiru) eta bost urtekoak ere bai (mugarik gabe). Horregatik guztiagatik, gomendagarria da enpresa-sektore publikoan aplikatu behar diren ordainsariak arautzea eta berdintzea.

Beste alderdi batzuk

- Basalan, S.A. eta Garbiker, S.A.k 2010ean hurrenez hurren aldi baterako 57 eta 16 langile kontratatu dituzte, kontratuak gauzatzeko lehenagoko ekitaldietan kanpoko enpresa batek gauzatutako hautaketa prozesu batzuen bitartez egindako lan-poltsak hartu dituzte abiaburu. Nahiz proposatutako zerrendek ez duten balorazio hurrenkera bat ezartzen, langileen kontratazioan errotazioa dagoela ikusten da. Nolanahi den ere, gomendagarria litzateke zerrendak balioztatzea, langileen kontratazioan ezarritako printzipioak betetzen direla egiaztatzearen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. ENPRESA SEKTORE PUBLIKOAREN ALDERDI FINANTZARIOAK

Epe luzeko finantzaketa

- 2010eko urtarrilaren 1ean guztira 589 milioi euroren saldoa zuten Funts Propioek honako aldaketa hauek dituzte:
 - BFAk guztira 53,4 mila euroren zenbatekoan izenpetutako kapitalaren gehikuntzak.
 - Erakunde eta sozietateen galerak berdintzeko BFAk guztira 9,2 milioi euroren ekarpenak egin ditu; 2010ko ekitaldian galerak guztira 40,3 milioi eurorenak izan dira.

BFAk 62,6 milioi euro eman ditu 2010eko ekitaldian Enpresa Sektore Publikoaren Funts Propioetarako. Kopuru honek Funts Propioen hasierako saldoaren gainean % 10 egiten du.

- BFAREN aldetik jasotako Diru-laguntza, dohaintza eta legatuek 14,8 milioi euro egin dituzte eta nagusiki, Lantik, S.A.ren (11,8 milioi euro) eta Azpiegitura, S.A.ren artean (2,9 milioi euro) banatu dira.
- Enpresa Sektore Publikoaren zorpetzea 2010eko urtean 312,8 milioi euro gehitu da (% 49) eta 643,4 milioi eurokoa izatetik 956,2 milioi eurokoa izatera pasa da; hortik kopuru handiena Interbiak, S.A.ri dagokio, azpiegiturak egiteko. Kopuru honetatik Egoeraren Balantzeetan epe luzera erregistratutako zenbatekoak 947,6 mila euro egin ditu.

Epe laburreko finantzaketa

Sozietateen epe laburreko finantza egoerak (Aktibo arrunta-Pasibo arrunta) pasiboari aurre egiteko behar hainbateko aktiboa dagoela erakusten du, Aparkabisa, S.A.ren kasuan izan ezik, izan ere, honako hau epe laburreko baliatutako kreditu kontu bitartez finantzatzen da (2,1 milioi euro), 2011n berritu dena; honek erakusten du ez diela unean uneko diruzaintza-beharrizanei aurre egiten.

Inbertsioak

Enpresa Sektore Publikoak gauzatutako inbertsioen atalean 2010eko ibilgetuko altak gailentzen dira, guztira 349 milioi euroren zenbatekoan. Zenbateko honetatik, % 83 Interbiak, S.A.k ekitaldian azpiegiturretan egindako inbertsioei dagokie.

Ekitaldiaren emaitza

Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten enpresa-erakunde eta sozietate publikoek guztira 2010eko ekitaldian 42,1 milioi euroren galerak izan dituzte (LAE eta Basalan, S.A., sozietateek irabaziak izan dituzte eta Lantik, S.A. eta Zugaztel, S.A.k zeroko emaitza izan dute). Hona hemen Galera-Irabazien Kontua interpretatuzetik azpimarratu diren atalak:



- Guztira izandako galeretatik 24,4 milioi euro Azpiegiturak, S.A.ri dagozkio eta horietatik 21,6 milioi euro Miribilla kirolguneko Abian diren eraikuntzak kontuan erregistratutako balio galerari dagozkio; Azpiegiturak, S.A.k eraiki eta finantzatu baitu inbertsioaren % 50a; gainerako % 50a Bilboko Udalak finantzatu du eta toki erakunde horri laga dio kirolgunea, behin amaitua dagoela. Obra hau 2011ko apirilean amaitu zen 47,8 milioi euroren kostuarekin.
- Enpresa Sektore Publikoak 2010eko ekitaldian guztira 234,8 milioi euroren ustiaketa sarrerak izan ditu; horietatik % 69 atxikitako enpresei emandako zerbitzuei dagokie, BFari nagusiki. Ustiaketako sarrerak eskuratzeko atxikitako enpresekiko menpekotasun erabatekoa Basalan, S.A., Lantik, S.A., Lantik, S.A., Zugaztel, S.A. eta Azpiegiturak, S.A.n gertatzen da. Mendekotasun honek indar txikiagoa du Interbiak, S.A.n eta gainerakoan ez da adierazgarria.
- Sozietate gehienetan Ekitaldiaren emaitza ia osorik bat dator Ustiaketaren emaitzarekin. Hainbat sozietatetan Emaizta Finantzarioa adierazgarria da eta, gainera, negatiboa:

SOZIETATEA	Euroak milakotan		
	Ustiaketan emaitza	Emaizta finantzarioa	Ekitaldiaren emaitza
Aparkabisa, S.A.	(2.263)	(296)	(2.559)
Interbiak, S.A.	33.913	(34.499)	(586)
Azpiegiturak, S.A.	(4.059)	(1.545)	(5.604)
Bideak- Bizkaiko Bideak, S.A.	1.612	(1.152)	460

Interbiak, S.A.n autobideen eraikuntzak sortutako interesak kapitalizatu egin dira eta ustiaketa sarreretan 28,3 milioi euroren kontrakontua izan dute. Alderdi hau ezabatuz gero, ustiaketaren emaitza 5,6 milioi eurokoa izango litzateke eta emaitza finantzarioa, berriz, negatiboa litzateke 6,2 milioi euroren zenbatekoan.

**V. ENPRESA SEKTORE PUBLIKOAREN KONTUAK****V.1. FORU ENPRESEN ERAKUNDE PUBLIKOEN KONTUAK****A. EGOERAREN BALANTZEAK 2010 eta 2009ko abenduaren 31n**

Euroak milakotan

	Eranskina	ALE		Tutoretza Erakundea	
		2010	2009	2010	2009
AKTIBO EZ ARRUNTA		2.207	2.255	304	401
Ibilgetu ukiezina.....	A1	1.313	1.343	14	65
Ibilgetu materialak	A1	894	912	290	336
AKTIBO ARRUNTA		872	692	323	335
Izakinak	A5	-	-	13	7
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko bestel. knt.....		168	201	58	79
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		-	-	2	2
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		2	2	-	-
Eskudirua eta b. aktibo likido baliokide batz.....		702	489	250	247
AKTIBOA GUZTIRA		3.079	2.947	627	736
ONDARE GARBIA		2.647	2.712	304	401
Eskrituran jasotako kapitala.....		301	301	-	-
Erretserbak		29	16	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk		-	-	1.994	1.969
Ekitaldiaren emaitza		95	130	(1.994)	(1.969)
Funts propioak	A6	425	447	-	-
Diru-laguntzak, dohain. eta jasot. legat.....	A7	2.222	2.265	304	401
PASIBO ARRUNTA		432	235	323	335
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A9	-	-	-	6
Merkatar. hartzek. eta kobr. beste kntu batzuk	A9	432	235	323	329
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		3.079	2.947	627	736

B. 2010 eta 2009ko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eranskina	ALE		Tutoretza Erakundea	
		2010	2009	2010	2009
Negozio zifratik zenbateko garbia	A14	1.184	1.223	-	-
Hornidurak	A13	-	-	(250)	(266)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	A14	3	22	-	-
Langileria-gastuak	A12	(929)	(942)	(1.270)	(1.216)
Bestelako ustiapen gastuak	A13	(165)	(162)	(476)	(492)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	A1	(74)	(78)	(103)	(100)
Ibilgetu ez finantz. diru-laguntza egoztea	A7	53	52	103	100
Narriadura eta ibilget. emaitza eta bestel. emaitzak.....		19	7	-	-
Ustiaketaren emaitza		91	122	(1.996)	(1.974)
Emaitza finantzarioa		4	8	2	5
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO					
EKITALDIAREN EMAITZA	95	130	(1.994)	(1.969)	
EKITALDIAREN EMAITZA		95	130	(1.994)	(1.969)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2. MERKATARITZAKO SOZIETATE FORALEN KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2010 eta 2009ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eranskina	Aparakabisa		Basalan		BBA		Beaz	
		2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
AKTIBO EZ ARRUNTA		34.596	35.976	319	334	-	221	289	151
lbilgetu ukiezina.....	A1	-	-	-	-	-	33	29	11
lbilgetu materialak	A1	488	476	319	334	-	161	133	51
lbilgetuko inbertsioak.....	A2	34.108	35.500	-	-	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz....	A3	-	-	-	-	-	3	63	62
Finantza inbertsioak epe luzera	A4	-	-	-	-	-	24	64	27
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		-	-	-	-	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA		409	828	2.330	3.020	-	10.288	11.743	3.100
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak		-	-	-	-	-	-	-	-
Izakinak	A5	-	-	12	12	-	-	-	28
Merkat. zordunak eta kobratz. bestel. knt. ...		351	506	1.494	2.643	-	152	228	659
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab. ...		-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		-	-	6	6	-	1	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		28	26	9	9	-	-	-	-
Eskudir. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...		30	296	809	350	-	10.135	11.515	2.413
AKTIBOA GUZTIRA		35.005	36.804	2.649	3.354	-	10.509	12.032	3.251
ONDARE GARBIA		23.084	23.143	1.175	1.089	-	422	1.228	901
Eskrituran jasotako kapitala.....		47.641	45.141	950	950	-	337	1.702	1.475
Erretserbak		(128)	(128)	139	59	-	-	1	-
Aurreko ekitaldietako ondorioak		(21.870)	(19.310)	-	-	-	(109)	(686)	(757)
Bazkideen beste ekarpen batzuk		-	-	-	-	-	2.769	4.319	2.339
Ekitaldiaren emaitza		(2.559)	(2.560)	86	80	-	(2.769)	(4.319)	(2.268)
Funts propioak	A6	23.084	23.143	1.175	1.089	-	228	1.017	789
Balio aldaketagatiko doiketak		-	-	-	-	-	-	-	-
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.	A7	-	-	-	-	-	194	211	112
PASIBO EZ ARRUNTA		7.331	9.236	-	-	-	211	-	-
Epe luzeko hornidurak	A8	7	41	-	-	-	211	-	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	A10	7.074	8.936	-	-	-	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak		250	259	-	-	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		-	-	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA		4.590	4.425	1.474	2.265	-	9.876	10.804	2.350
Epe laburreko zuzkidurak		-	-	-	-	-	-	174	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	A10	4.099	3.578	-	150	-	-	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A9	11	440	6	3	-	9	9.940	1.646
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab....		-	-	-	-	-	-	-	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bst. kntu batzuk	A9	480	407	1.468	2.112	-	9.867	690	704
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		35.005	36.804	2.649	3.354	-	10.509	12.032	3.251



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2010 eta 2009ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eranskina	Euskalduna J.		Garbiker		Interbiak		Lantik	
		2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
AKTIBO EZ ARRUNTA		41.437	42.422	47.617	43.991	1.042.963	773.190	27.279	28.316
lbilgetu ukiezina.....	A1	11	12	1.913	1.863	4	7	11.802	10.720
lbilgetu materialak	A1	41.426	42.410	40.574	36.848	1.042.932	773.154	15.271	17.431
lbilgetuko inbertsioak.....	A2	-	-	-	-	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz....	A3	-	-	3.504	3.654	-	-	206	165
Finantza inbertsioak epe luzera	A4	-	-	1	1	27	29	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		-	-	1.625	1.625	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA		11.006	11.139	28.069	24.800	141.406	115.640	48.434	42.073
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak		-	-	-	-	-	-	-	1.554
Izakinak	A5	-	-	-	-	10.156	9.439	57	78
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt....		1.085	1.354	11.506	4.722	53.844	43.437	12.217	20.403
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab. ...		-	-	479	478	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		5.290	19	-	-	-	-	408	63
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		12	-	79	41	7	8	600	708
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...		4.619	9.766	16.005	19.559	77.399	62.756	35.152	19.267
AKTIBOA GUZTIRA		52.443	53.561	75.686	68.791	1.184.369	888.830	75.713	70.389
ONDARE GARBIA		50.093	51.029	27.217	23.232	238.761	211.380	61.663	58.547
Eskrituran jasotako kapitala.....		43.591	43.591	25.929	19.829	121.200	93.200	24.554	24.554
Erretserbak		160	160	2.940	4.491	117.640	115.654	1.053	1.053
Aurreko ekitaldietako ondorioak.....		(14.215)	(13.262)	-	-	-	-	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....		-	-	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....		(385)	(953)	(2.080)	(1.531)	(586)	1.998	-	-
Funts propioak	A6	29.151	29.536	26.789	22.789	238.254	210.852	25.607	25.607
Balio aldaketagatiko doiketak		-	-	-	-	-	-	-	-
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.	A7	20.942	21.493	428	443	507	528	36.056	32.940
PASIBO EZ ARRUNTA		-	-	39.620	40.097	870.000	550.000	269	255
Epe luzeko hornidurak	A8	-	-	39.130	39.531	-	-	269	255
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	A10	-	-	-	-	870.000	550.000	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak		-	-	324	393	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		-	-	166	173	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA		2.350	2.532	8.849	5.462	75.608	127.450	13.781	11.587
Epe laburreko zuzkidurak		-	-	-	47	-	-	138	105
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	A10	-	-	-	-	13.934	8.709	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A9	202	209	5.308	2.254	32.495	93.865	5.199	2.303
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab....		-	-	168	103	33	13	-	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk .	A9	2.148	2.323	3.373	3.058	29.146	24.863	8.444	9.179
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		52.443	53.561	75.686	68.791	1.184.369	888.830	75.713	70.389



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2010 eta 2009ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Errekalde Aretoa, S.L.		Seed Capital		Zugaztel		Azpiegiturak		
	Eranskina	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
AKTIBO EZ ARRUNTA		927	941	114	147	2.161	2.180	224.742	-
lbilgetu ukiezina.....	A1	863	893	23	29	6	-	639	-
lbilgetu materialak	A1	64	48	75	102	2.155	2.180	175.112	-
lbilgetuko inbertsioak.....	A2	-	-	-	-	-	-	16.836	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz.....	A3	-	-	-	-	-	-	29.235	-
Finantza inbertsioak epe luzera	A4	-	-	16	16	-	-	2.920	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		-	-	-	-	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA		210	194	404	418	1.327	999	181.199	-
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak		-	-	-	-	-	-	-	-
Izakinak	A5	-	-	-	-	-	-	138.219	-
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....		-	3	-	-	485	689	27.840	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab. ...	A3.1	-	-	315	358	-	-	2.907	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		-	-	2	6	-	-	579	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		16	52	-	-	2	-	33	-
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...		194	139	87	54	840	310	11.621	-
AKTIBOA GUZTIRA		1.137	1.135	518	565	3.488	3.179	405.941	-
ONDARE GARBIA		975	989	361	393	2.826	2.804	266.549	-
Eskrituran jasotako kapitala.....		60	60	330	330	2.616	2.616	286.709	-
Erretserbak		-	-	-	-	(25)	(21)	1	-
Aurreko ekitaldietako ondorioak		(7)	(7)	(68)	(68)	-	-	(19.910)	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk		604	720	807	795	-	-	1.500	-
Ekitaldiaren emaitza		(604)	(720)	(807)	(795)	-	-	(5.604)	-
Funts propioak	A6	53	53	262	262	2.591	2.595	262.696	-
Balio aldaketagatiko doiketak		-	-	-	-	-	-	(2.257)	-
Diru-laguntzak, dohain. eta jasot. legat.....	A7	922	936	99	131	235	209	6.110	-
PASIBO EZ ARRUNTA		-	-	-	-	9	29	72.578	-
Epe luzeko hornidurak	A8	-	-	-	-	9	29	-	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	A10	-	-	-	-	-	-	70.522	-
Epe luzeko bestel. zorrak		-	-	-	-	-	-	2.056	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		-	-	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA		162	146	157	172	653	346	66.814	-
Epe laburreko zuzkidurak.....		-	-	-	-	21	28	658	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	A10	-	-	-	-	-	-	5.254	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A9	18	7	-	-	3	174	14.105	-
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab....		-	-	-	-	-	-	1	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk .	A9	144	139	157	172	629	144	46.796	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		1.137	1.135	518	565	3.488	3.179	405.941	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2010eko uztailaren 5ean eta 2009ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	Eranskina	Azpiegitura		Bizkaiko Bideak		Bizkailur		Kirolgintzan	
		2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
AKTIBO EZ ARRUNTA		64.361	59.224	63.460	64.337	46.167	45.174	57.540	46.691
lbilgetu ukiezina.....	A1	-	-	-	-	87	120	648	653
lbilgetu materialak	A1	61.566	56.422	61.589	62.468	37	42	48.973	38.062
lbilgetuko inbertsioak.....	A2	-	-	1.861	1.861	-	-	7.919	7.976
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz....	A3	-	-	-	-	30.944	29.913	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera	A4	2.795	2.802	10	8	15.099	15.099	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		-	-	-	-	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA		6.602	10.231	12.930	16.590	167.822	149.865	42.921	29.858
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak		-	-	-	-	-	-	-	-
Izakinak	A5	-	-	-	-	142.992	142.157	-	-
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....		4.032	966	6.778	10.665	9.750	6.782	5.430	2.605
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab. ...		-	-	1	1	-	3	4.331	745
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		-	15	-	-	568	-	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		-	12	7	7	-	-	36	20
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...		2.570	9.238	6.144	5.917	14.512	923	33.124	26.488
AKTIBOA GUZTIRA		70.963	69.455	76.390	80.927	213.989	195.039	100.461	76.549
ONDARE GARBIA		65.204	63.771	6.190	5.746	135.399	135.816	83.774	67.980
Eskrituran jasotako kapitala.....		85.756	85.756	4.572	4.572	143.478	143.478	95.423	78.623
Erretserbak		140	140	2.818	2.756	328	328	-	-
Aurreko ekitaldietako ondorioak		(24.210)	(23.039)	(608)	(1.171)	(7.990)	(6.192)	(11.294)	(9.554)
Bazkideen beste ekarpen batzuk		500	1.786	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza		(1.827)	(2.957)	460	626	(417)	(1.798)	(1.001)	(1.740)
Funts propioak	A6.	60.359	61.686	7.242	6.783	135.399	135.816	83.128	67.329
Balio aldaketagatiko doiketak		-	-	(1.768)	(1.768)	-	-	-	-
Diru-laguntzak, dohain. eta jasot. legat.....	A7	4.845	2.085	716	731	-	-	646	651
PASIBO EZ ARRUNTA		2.173	2.261	57.488	58.337	15.367	367	-	-
Epe luzeko hornidurak	A8	-	104	-	-	-	-	-	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	A10	2.000	2.000	56.583	57.432	15.000	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak		173	157	905	905	367	367	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak		-	-	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA		3.586	3.423	12.712	16.844	63.223	58.856	16.687	8.569
Epe laburreko zuzkidurak.....		-	-	-	-	608	608	-	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	A10	455	417	4.220	3.610	24.687	17.577	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A9	884	672	868	869	21	8	16.566	8.508
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab....		1.641	1.641	251	279	-	-	-	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk .	A9	606	693	7.373	12.086	37.907	40.663	121	61
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		70.963	69.455	76.390	80.927	213.989	195.039	100.461	76.549



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. 2010 eta 2009ko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eranskina	Aparkabisa		Basalan		BBA		Beaz	
		2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
Negozio zifraren zenbateko garbia....	A14	3.729	3.995	5.688	6.277	-	23	15	216
Izakinen bariaraz.....	A14	-	-	-	-	-	-	-	-
Aktiborako egindako lanak	A14	-	-	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	A13	-	-	(755)	(1.066)	-	(1)	-	-
Bestelako ustiaketa sarrerak	A14	3	20	3	-	-	-	10	153
Langileria-gastuak.....	A12	(2.543)	(2.775)	(3.628)	(3.513)	-	(1.645)	(3.209)	(1.653)
Bestelako ustiapen gastuak.....	A13	(2.137)	(2.051)	(992)	(1.367)	-	(1.235)	(1.181)	(1.076)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	A1,A2	(1.423)	(1.423)	(240)	(253)	-	(87)	(94)	(169)
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea .	A7	-	-	-	-	-	87	95	3.882
Narriadura eta ibilget. erag. emait.....		-	-	-	-	-	-	-	(3.640)
Beste emaitza batzuk		108	47	4	-	-	-	(21)	(7)
Ustiaketaren emaitza		(2.263)	(2.187)	80	78	-	(2.858)	(4.385)	(2.294)
Finantza sarrerak.....		1	14	8	4	-	89	66	26
Finantza gastuak.....	A10	(297)	(387)	-	(2)	-	-	-	-
Narriadura eta i. fin. bester. emait.....		-	-	-	-	-	-	-	-
Emaitza finantzarioa		(296)	(373)	8	2	-	89	66	26
Emaitza zerga aurretik		(2.559)	(2.560)	88	80	-	(2.769)	(4.319)	(2.268)
Mozkinen gaineko zerga.....		-	-	(2)	-	-	-	-	-
ERAGIKETA JARRAITUETATIK									
ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA		(2.559)	(2.560)	86	80	-	(2.769)	(4.319)	(2.268)
EKITALDIAREN EMAITZA		(2.559)	(2.560)	86	80	-	(2.769)	(4.319)	(2.268)

	Eranskina	Euskalduna J.		Garbiker		Interbiak		Lantik	
		2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
Negozio zifratik zenbateko garbia....	A14	6.443	6.572	19.121	18.221	42.374	41.376	47.165	49.121
Izakinen bariarioa	A14	-	-	-	-	-	-	-	-
Aktiborako egindako lanak	A14	-	-	-	-	28.283	17.688	-	-
Hornidurak	A13	-	-	(9.799)	(9.978)	-	-	(15.497)	(17.558)
Bestelako ustiaketa sarrerak	A14	146	114	123	83	64.965	45.753	58	29
Langileria-gastuak.....	A12	(1.450)	(1.437)	(5.848)	(5.383)	(2.226)	(2.218)	(17.830)	(19.941)
Bestelako ustiapen gastuak.....	A13	(4.974)	(5.140)	(3.218)	(3.724)	(79.444)	(59.276)	(10.538)	(9.514)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	A1,A2	(1.428)	(2.481)	(2.597)	(2.551)	(20.059)	(20.589)	(11.182)	(7.324)
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea .	A7	631	1.220	24	62	20	20	8.674	4.940
Narriadura eta ibilget. erag. emait.....		-	-	175	(30)	-	-	62	4
Beste emaitza batzuk		-	-	2	68	-	-	(1.093)	16
Ustiaketaren emaitza		(632)	(1.152)	(2.017)	(3.232)	33.913	22.754	(181)	(227)
Finantza sarrerak.....		247	199	133	297	579	870	276	364
Finantza gastuak.....	A10	-	-	(46)	(48)	(35.078)	(21.626)	-	-
Narriadura eta i. fin. bester. emait.....		-	-	(150)	(173)	-	-	(95)	(137)
Emaitza finantzarioa		247	199	(63)	76	(34.499)	(20.756)	181	227
Emaitza zerga aurretik		(385)	(953)	(2.080)	(3.156)	(586)	1.998	-	-
Mozkinen gaineko zerga.....		-	-	-	1.625	-	-	-	-
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO									
EKITALDIAREN EMAITZA		(385)	(953)	(2.080)	(1.531)	(586)	1.998	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA		(385)	(953)	(2.080)	(1.531)	(586)	1.998	-	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. 2010 eta 2009ko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eranskina	Errekalde Aretoa, S.L.		Seed Capital		Zugaztel		Azpiegiturak	
		2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	A14	1	3	258	305	4.570	607	26.528	-
Izakinen bariazioa	A14	-	-	-	-	-	-	3.620	-
Aktiborako egindako lanak	A14	-	-	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	A13	(122)	(175)	-	-	(1.919)	(7)	(25.564)	-
Bestelako ustiaketa sarrerak	A14	27	27	27	24	-	-	90	-
Langileria-gastuak	A12	(306)	(303)	(653)	(726)	(2.345)	(568)	(1.877)	-
Bestelako ustiapen gastuak	A13	(179)	(247)	(441)	(400)	(261)	(22)	(1.384)	-
Ibilgetuaren amortizazioa	A1,A2	(51)	(53)	(40)	(36)	(86)	(11)	(2.891)	-
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea .	A7	24	26	40	36	34	1	88	-
Narriadura eta ibilget. erag. emait.....		-	-	-	-	-	-	(2.623)	-
Beste emaitza batzuk		-	-	-	-	-	-	(46)	-
Ustiaketaren emaitza		(606)	(722)	(809)	(797)	(7)	-	(4.059)	-
Finantza sarrerak.....		2	2	2	2	7	-	253	-
Finantza gastuak.....	A10	-	-	-	-	-	-	(1.745)	-
Narriadura eta i. fin. bester. emait.....		-	-	-	-	-	-	(53)	-
Emaitza finantzarioa		2	2	2	2	7	-	(1.545)	-
Emaitza zerga aurretik		(604)	(720)	(807)	(795)	-	-	(5.604)	-
Mozkinen gaineko zerga.....		-	-	-	-	-	-	-	-
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO									
EKITALDIAREN EMAITZA		(604)	(720)	(807)	(795)	-	-	(5.604)	-
EKITALDIAREN EMAITZA		(604)	(720)	(807)	(795)	-	-	(5.604)	-

	Eranskina	Azpiegitura		Bizkaiko Bideak		Bizkailur		Kirolgintzan	
		2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	A14	1.319	2.685	21.056	35.645	20.615	17.777	-	-
Izakinen aldakuntza	A14	-	-	-	-	2.812	1.309	-	-
Aktiborako egindako lanak	A14	-	-	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	A13	(44)	(352)	(17.907)	(29.520)	(22.828)	(19.973)	-	-
Bestelako ustiaketa sarrerak	A14	-	8	42	29	5	404	114	259
Langileria-gastuak	A12	(1.561)	(2.911)	(472)	(812)	(431)	(992)	(230)	(430)
Bestelako ustiapen gastuak	A13	(785)	(1.215)	(243)	(641)	(329)	(828)	(112)	(167)
Ibilgetuaren amortizazioa	A1,A2	(887)	(1.527)	(879)	(1.648)	(41)	(81)	(888)	(1.810)
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea .	A7	115	194	15	12	-	-	5	9
Narriadura eta ibilget. erag. emait.....		-	-	-	-	-	-	(2)	-
Beste emaitza batzuk		28	-	-	-	-	(2)	-	-
Ustiaketaren emaitza		(1.815)	(3.118)	1.612	3.065	(197)	(2.386)	(1.113)	(2.139)
Finantza sarrerak.....		26	253	78	113	1	149	112	399
Finantza gastuak.....	A10	(38)	(92)	(1.230)	(2.552)	(216)	(177)	-	-
Narriadura eta i. fin. bester. emait.....		-	-	-	-	(5)	616	-	-
Emaitza finantzarioa		(12)	161	(1.152)	(2.439)	(220)	588	112	399
Emaitza zerga aurretik		(1.827)	(2.957)	460	626	(417)	(1.798)	(1.001)	(1.740)
Mozkinen gaineko zerga.....		-	-	-	-	-	-	-	-
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO									
EKITALDIAREN EMAITZA		(1.827)	(2.957)	460	626	(417)	(1.798)	(1.001)	(1.740)
EKITALDIAREN EMAITZA		(1.827)	(2.957)	460	626	(417)	(1.798)	(1.001)	(1.740)





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BFA-REN ALEGAZIOAK BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO 2010-EKO KONTU OROKORRARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI JARRITAKOAK: II. ATALA - ENPRESEN SEKTORE PUBLIKOA

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

- Enpresa-erakunde publikoek eta foru-sozietate publikoek langile finkoen hautaketa egiteko enpresa espezializatuak kontratatzen dituzte, eta haien deialdiaren publizitatea egiten dute eta hautagaien azken zerrenda proposatzen dute, puntuka antolatuta. Sozietateek enpresa kontratatuei ez die exijitzen hautagaiak aukeratzekoan berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzak bete dituztela ziurtatzeko frogarik, eta, ondorioz, ezin izan da egiaztatu printzipio horiek bete diren. 2010eko ekitaldian egindako kontratazio finkoak honakoak izan dira:*

SOZIETATEA	Langileak
Azpiegitura, S.A.	1
Beaz, S.A.	1
Garbiker, S.A.	(*)9
Lantik, S.A.	1

(*): 4 denbora partzalean dauden langile finkoak dira

AZPIEGITURAKen ALEGAZIOAK

Langileriaren hautaketan espezializatutako enpresek deialdi publiko bat egiten dute, prentsan iragarkiak argitaratuz, publizitate-printzipioa bermatzeko. Ondoren, hautagaiak aukeratzeko prozesua gauzatzen dute, eta, gero, 3 eta 5 pertsona bitarteko zerrenda bat osatzen dute Erakunde kontratatzaileak berak zehazteko nor den hautatutako pertsona.

Kasu guztietan eskatzen da hautagai horiek aukeratzekoan berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzak ziurtatzea ahalbidetzen duen dokumentazioa aurkeztea. Hautaketa egiten duten enpresek, Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Legeak ezarritakoari jarraiki, Lege horrekin gatazkan ez dagoen dokumentazio guztia aurkezten dute¹.

¹ HKEE honi aurkeztutako dokumentazioak ez du berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete direla egiaztatzen; horiek izangai guztiekin egindako hautaketa prozesu osoa berrikusita egiaztatu behar dira.



BEAZen ALEGAZIOAK

Batzuetan, langileak hautatzen dituzten enpresei xehatze maila handiagoa eskatu izan zaie, baina enpresa hauek xehetasun gehiagotan sartzeko uzkur izaten dira, gure enpresari aurkeztutako hautagai izaera lortzen ez duten pertsonen kasuan.

Aukeraketa enpresa horiei argitaratutako lanpostuak eskatzerakoan, enpresei euren datuak bidaltzen dizkieten pertsoneri buruzko informazioari ematen zaion tratamendua da jarrera horren zergatia. Izan ere, informazio hori DBLOak babesten du, eta datu horiek ematea sozietate kontratugilearekin elkarrizketaren azken fasea eginez gero bakarrik onartu ohi dute titularrek.

GARBIKERren ALEGAZIOAK

Kontratazioak egin baino lehen, prentsan iragarkiak argitaratu dira, eta, ondorengo paragrafoetan ikusiko den bezala, guztiz bete dira bai Legea, baita berdintasun-, meritu- eta gaitasun-irizpideak ere. Beste edozein ohar egin baino lehen, zehaztu beharra dago GARBIKER bezalako sozietate publikoak Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen aplikazio-esparrutik kanpo daudela eta langileriarekiko duten harremana Lan-arloko Zuzenbideko arauen menpe dagoela. Era berean, lan-arloko legeriaren arabera araututako kontratuak salbuetsita daude Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen aplikazio-esparrutik (SPKL, 4.1.a artikulua).

Alegia, zentzu hertsian, legeriak ez du inolako publizitate-baldintzarik ezartzen.

Bestalde, sozietate publikoak Administrazioa arautzen duten printzipio konstituzional berberen menpe daudela onartzea posible izango balitz ere (besteak beste, enplegua berdintasunez lortzeko irizpidea, merituena, gaitasunena eta objektibotasunarena, EK-ko 14, 23.2 eta 103.1. artikuluetan aipatzen dira), printzipio horiek gauzatu edo bete diren baloratzeko, kontuan hartu behar dira bete nahi den lanpostua eta haren inguruko baldintzak.

Kasu honetan, kontratazioa publizitate-irizpide zehatzaren menpe ez dagoen arren, GARBIKER erakundeak hautaketa-prozesu bati heldu dionean, enpresa ziurtatu eta espezializatu baten bitartez egin du. Zehazki, prozesua DEIA eta El Correo egunkarietan iragarkiak argitaratuz hasi da; ondoren, curriculumak jaso dira eta elkarrizketak egin dira, eta, azkenik, txostenean aipatzen den langilea aukeratu da, eta pertsona hori argitaratutako iragarkien arabera eratutako lan-poltsaren barruko hautagaietako bat zen.

Aipatutakoaz gain, esan beharra dago meritu- eta gaitasun-irizpideak guztiz bete direla, langileak lanpostua betetzeko beharrezkoak diren tituluak eta esperientzia baititu, eta gainerako hautagaien artetik aukeratua izan da lanposturako hautagairik onena dela ikusi delako.

Ondorioz, langileen kontratazioan zorrotasunez bete dira publizitate-, meritu- eta gaitasun-irizpideak¹.

LANTIKen ALEGAZIOAK

Kontratazioak egin baino lehen, prentsan iragarkiak argitaratu dira, eta, ondorengo paragrafoetan ikusiko den bezala, guztiz bete dira bai Legea, baita berdintasun-, meritu- eta gaitasun-irizpideak ere.

Beste edozein ohar egin baino lehen, zehaztu beharra dago LANTIK bezalako sozietate publikoak Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen aplikazio-esparrutik kanpo daudela eta langileriarekiko duten harremana Lan-arloko Zuzenbideko arauen menpe dagoela. Era berean, lan-arloko legeriaren arabera araututako kontratuak salbuetsita daude Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen aplikazio-esparrutik (SPKL, 4.1.a artikulua).

Alegia, zentzu hertsian, legeriak ez du inolako publizitate-baldintzarik ezartzen.

Bestalde, sozietate publikoak Administrazioa arautzen duten printzipio konstituzional berberen menpe daudela onartzea posible izango balitz ere (besteak beste, enplegua berdintasunez lortzeko irizpidea, merituena, gaitasunena eta objektibotasunarena, EK-ko 14, 23.2 eta 103.1. artikuluetan aipatzen dira), printzipio horiek gauzatu edo bete diren baloratzeko, kontuan hartu behar dira bete nahi den lanpostua eta haren inguruko baldintzak.

Kasu honetan, kontratazioa publizitatearen baldintza zehatzaren mende ez dagoenean ere, LANTIKek aukeraketa prozesua hasten du, enpresa kreditatu eta espezializatu baten bidez. Prozesu hori hastean, bi egunkaritan iragarkiak argitaratzen dira, eta curriculum vitaeak jasotzen dira, elkarrizketak egiten dira eta, azkenik, langilea aukeratzen da.

Aipatutakoaz gain, esan beharra dago meritu- eta gaitasun-irizpideak guztiz bete direla, langileak lanpostua betetzeko beharrezkoak diren tituluak eta esperientzia baititu, eta gainerako hautagaien artetik aukeratua izan da lanposturako hautagairik onena dela ikusi delako.

Ondorioz, langileen kontratazioan zorrotasunez bete dira publizitate-, meritu- eta gaitasun-irizpideak¹.

ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kirolgintzan, S.A.

- Sozietateak zuzenean bideo-markagailu bat erosi du Miribillako kiroldegirako, 377.000 eurotan. Erosketa esparru horretan lan egiten duen kirol sozietate bati erosi dio zuzenean; beraz, ez ditu bete publizitatearen eta lehiaren printzipioak.*

AZPIEGITURAKen ALEGAZIOAK

Erositako elementuak beste kirol esparru batean zegoen jarrita. Une horretara arte, markagailuaren jabea zen kirol sozietateak bertan jokutzen zuen.



Sozietate horrek Miribillako Kiroldegira aldatu zuen egoitza, lehiaketa partidak bertan jokatzeko. Partidak jokatzeko, ezinbestekoa zen ordura arte zeukanaren antzeko markagailua edukitzea. Horregatik, aurretik zegoen markagailua erostea erabaki zen, eta ez markagailu berria (haren kostua 500.000 eurokoa izango litzateke). Markagailua eraikinaren instalazio finko gisa geratu da.

Erosketa hori “Miribillako Kirol Multzoa eraikitzeke Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak” onartu zuen. Batzorde horretan Bizkaiko Foru Aldundiko, Bilboko Udaleko eta Kirolgintzaneko ordezkariak daude.

Lantik, S.A.

3. *Sozietateak bere egoitza dagoen eraikinaren beheko solairuan eta lehenengo solairuan erreforma obrak egin ditu, 230.734 eurotan guztira, zortzi hirugarrenekin kontratatuta. Kontratuaren xedea behar ez bezala zatitu da, eta SPKLaren 74.2 artikuluan ezarritakoa ez da bete.*

LANTIKen ALEGAZIOAK

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 74. artikuluan, administrazio kontratuei buruzko aurreko legerian egiten zen bezala, debekatu egin zen “kontratuaren zenbatekoa murrizteko asmoz eta horrela publizitate-betekizunak edo adjudikazio prozedura egokiari buruzko betekizunak saihesteko” kontratua zatitzea.

Aipatutako manua eta hurrengo paragrafoetan daukan jarraipena oso zehaztugabea da bere idazkuntzan. Horregatik, unean uneko egoeretan kontratazioan zatikapena dagoela planteatu ahal da, xedea benetan existitu ez arren.

Gauzak horrela, ez dirudi arrazoizkoa kontratazio horren arduraduna den organoak arauetan iruzur egiteko asmoa zeukanik, baizik eta kontrakoa. Alegazioa egiten duenak frogatu beharko luke iruzurra egin dela, arrazoi objektiboetan oinarrituta, eta ez adierazpen soiletan.

Gure kasuan HKEEak lau esku hartze pilatu ditu, jarduketa edo xede bakarra bailiran. Baina jarduketa horiek ez dute loturarik euren artean eta une ezberdinetan hasi ziren. Komunen erreformak ez dauka zerikusirik prestakuntza gelen aldaketekin. Harreraren hobekuntzaren xedea, uztailean hasi zena, ez da batzar gelen erreformaren xede bera. Azken hori azaroan hasi zen, diru-zenbateko bat erabilgarri zegoela jakin zenean, uztailean bermatu ezinezkoa zena. Beheko solairuko prestakuntza gelan gortinak jartzeak ez du zerikusirik 1. solairuko batzar gelako girotzea egokitzearekin.

HKEEak adierazi du diru-zenbateko handiko obra bakar bat izan dela, baina ez da hala izan. Egokitzapen txikiak izan dira, unean unekoak eta izaera oso ezberdinekoak, zenbait kokaleku eta unetan egin direnak. gainera, kasu bakoitzean gremio egokiak egin ditu obrak.

Azaldu dugun guztiarengatik, argi dago ez dela behar ez bezalako zatiketarik egin, baizik eta hainbat xede izan direla, izaera propioarekin, batere batasun funtzionalik gabe, izaera



ezberdinekin eta une ezberdinetan egin direnak. Batzuk ez dira besteak behar bezala funtzionatzeko edo erabiltzeko beharrezkoak².

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Azpiegiturak, S.A.

1. *Sozietatearen memoriak ez du eman egoera-balantzearen aktibo hauetan eragina duten zalantzei buruzko informaziorik:*
 - *138,2 milioi euroko balioa daukaten izakinak. Haien egitea eraikuntza eta higiezin sektoreen krisiaren mende dago (A.5.1 eranskina).*

AZPIEGITURAKen ALEGAZIOAK

Sozietateak ondasun horiek eskuratze-kostuarekin erregistratzen ditu, eta egokiak diren balorazio-zuzenketak egiten dira merkatuko balioa erosketa-prezioa baino baxuagoa denean, Sozietatearen urteko kontuetan adierazten den bezala.

Higiezin sektoreko krisiak eragina du ondasunen zikloan, eta, ondorioz, saltzeke dauden etxebizitzak kopurua areagotu egin da, eta horiek behar bezala baloratu dira indarrean dagoen kontularitza-araudiari jarraiki.

Sozietatearen helburuetako bat honakoa da: “Lurzorua lortu eta sustatzea eta bizitegiarako eremuak urbanizatzea, babes publikoko erregimenak nabarmenduz eta etxebizitzak eraikitzea, babes publikoko batzuk nabarmenduz, baita ere,” eta “Bizkaiko proiektu estrategikoen sustapena, edo hala badagokio, eskualde konkretuen proiektuena...” Sozietatearen helburuari erantzunez, Sozietateak beheraldian dauden udalerrri jakin batzuk biziberritzera bideratutako jarduerak sustatzen ditu, eta etxebizitzak berehalako salmentan zailtasun handiagoak hartzen ditu bere gain.

Habidite hitzarmenaren bidez lurra eskuratzea

Zalantzak daude egindako erreklamazioaren ebazpenak kontuetan izan dezakeen eraginari buruz...

Europako Batzordearen iritzia eta horrek izan litzakeen ondorioak zein diren ezagutzen ez den bitartean, ez da egokitzat jotzen gai horren inguruan inolako gertakizunik islatzea kontabilitatean.

- *Higiezin-inbertsioak, 2006. urtean 15 milioi eurotan eskuratuak eta eskuratzeko unean bertan erosleari alokatuak, hilean euro bateko zenbatekoan, baldintza*

² Gastua eraikinaren bi solairutan egindako konponketei dagokie, jarduera banakako, halabeharrezkoek ez dagozkienak eta kontratazio espediente baten bidez bidera daitezkeenak.



batzuk betetzearen baldintzarekin eta aktiboak gauzatzeko erabilgarritasunean murrizpenak jarritz (ikusi A.2.2).

AZPIEGITURAKen ALEGAZIOAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak A.4 eranskinean adierazten duenez, inbertsio honen kontabilitateko birsailkapena egin da, Higiezin-inbertsioen epigrafean ipiniz. Une horretatik aurrera, eraikinak, makineria eta gainerako instalazioak kontabilitatean amortizatzen hasi dira, inbertsio honetarako estimatutako bizialdi erabilgarriaren arabera.

- *Epe luzeko kredituak, taldeko enpresei emanak eta 2010eko ekitaldian ixtean 7,3 milioi euroko saldoarekin. Diru hori berreskuratzeko itzaropenik ez dago (A.3.1). Gainera, aurreko ekitaldietan abalak egin dira taldeko enpresen alde, 2010eko ekitaldia ixtean 4,1 milioi euroko saldoa zutenak eta exekuzio arriskua dutenak (A.11 eranskina).*

AZPIEGITURAKen ALEGAZIOAK

Txostenean aipatu diren hiru inbertsioak Urdulizko Industrialdea, S.A., Sestao Bai, S.A. eta Ortulur, S.A. dira.

SESTAO BAI:

2011ko martxoaren 22an, Azpiegiturakek Sestao Baik egindako kapital gehikuntza sinatu zuen, bere aurreko partaidetzan zeukan proportzio berean. Beraz, akzio berriak sinatu ditu, 6.000.000 eurotan.

Partaidetza horren ordainketa Azpiegiturakek Sestao Bairi egindako maileguren konpentsazioaren bidez egin da zati batean, 4.453.572,59 euro (4,5 milioi Epaitegiaren txostenaren arabera), eta beste zati batean, 1.546.427,41 euro, 129/10 fakturatik ondorioztatutako kredituaren konpentsazioaren bidez. Faktura hori Sestao Bai, S.A.ren kudeaketa gastuei dagokie, Azpiegiturakek aurrerakin gisa ordainduak.

Partaidetzaren kontabilitateko balio garbia, kapitalaren gehikuntzaren ondoren, partaidetzaren kostua baino handiagoa da. Beraz, ez da narriaduren dotaziorik egin behar.

ORTULUR:

2010eko irailaren 30ean, Ortulur sozietateak hitzarmena sinatu zuen Ortumendi Bat, S. Coop. kooperatibarekin, Ortuella udalerriko "Mendialde 1" egikaritze unitatea kooperatiba araubidean sustatzeko.

Akordio honen bidez, Ortumendi Bat, S. Coop.ek "Mendialde 1" egikaritze unitatea osatzen duten lurrak eskuratu zituen, 2.093.716,29 eurotan, gehi 753.258,37 euro erantsitako gastuengatik. Beraz, behin betiko prezioa 2.846.974 eurokoa izan zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2011ko abenduaren 2an, Azpiegiturak, S.A.U.k eta Ortulur, S.A.k kreditua itzultzeko baldintzak aldatzeko akordioa sinatu zuten. Beraren bidez, lurak saltzean kobratutako dirua kreditua kitatzeko bideratuko da zuzenean.

Ondorioz, ez dago zalantzarik Azpiegiturak daukan 2,9 milioi euroko kredituaren ordainketari aurre egiteko Ortulurrek daukan gaitasunari buruz.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

III.1 AURREKONTUA

- Ondoko sozietate hauek izaera mugatzaileko aurrekontu kontsignazioak, 5/2006 Foru Arauaren 83.2 artikuluan ezarriak, gainditu dituzte:

AURREKONTUKO ESLEIPENAREKIN LOTUTAKO GEHIEGIZKO KOPURUA		Mila euro
SOZIETATEA	Partida	Zenbatekoa
Azpiegiturak, S.A.....	Ibilgetu materiala	3.415
Lantik, S.A.....	Ibilgetu ukiezina	120

Azpiegiturak, S.A.ren ibilgetu materialaren desbideraketa, 3,4 milioi eurokoa, Gatican lurak eta pabilioiak eskuratzearen ondorio da. Erosketa horren prezioa 6,1 milioi eurokoa da. Eskuraketa hori 2009ko abuztuko erabaki baten ondorioz egin da. Ez zegoen aurreikusita 2010eko ekitaldiko aurrekontuetako ibilgetu materialeko inbertsioen kapituluan sartzea, industriako lurzoruen izakinetan sartzea aurreikusi baitzen; azken kapitulu hori ez dago aurrekontu mugaketen mende.

Azkenik, aipatutako pabilioiak 2 urtez errentatu dira. Kontratua eskuraketaren egunean bertan egin da, 23.100 eurotan, gehi BEZ.

AZPIEGITURAKEN ALEGAZIOAK

Ibilgetu materialeko inbertsioaren aurrekontu mugak ez dira gainditzen. Gertatu dena ibilgetua gehitu dela da, kontabilitateko birsailkapen soila egin dela. Birsailkapen hori egiteko arrazoia da enpresaren lursail eta pabilioi batzuen destinoa, une horretara arte izakinen epigrafean ageri zirenak, aldatu dela.

Lurzoru industrialeko izakinak gehitzeko Azpiegiturakek eskuratu zituen pabilioi horiek gero 2 urtez alokatu zitzaizkion merkataritza sozietate bati. Indarrean dauden kontabilitateko arauekin bat etorriz, zirkulante taldetik ibilgetura birsailkatu behar izan ziren.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LANTIKen ALEGAZIOAK

Inbertsioetan eragina duten izaera mugatzaileko partidak hiru dira 5/2006 Foru Arauaren 83. artikulua araberak: ibilgetu ukiezin, material eta finantzaria. Batzuk ez lirateke besteak kontuan izan gabe, modu isolatuan, tratatu behar, uste baitugu egin nahi dena hau dela: enpresa publikoak urteko ekitaldirako BFAk guztira baimentzen dion inbertsio-muga gaitu duen ala ez egiaztatzea. Hain zuzen ere, 2010ean Lantikek 119.542,76 eurotan gaitu du ibilgetu ukiezinaren partida, ibilgetu materialaren partidan erabili ez dituen 118.422,30 euroekin konpentsatzen dena. Beraz, 1.120,46 euroko gaitu duen garbia dago. 10.393.969,6 euroko inbertsioetan, gaitu duen hori %0,01 da.

Lantiken kasuan, informazioaren teknologiek lotutako inbertsioei buruz ari gara hitz egiten; batzuetan oso konplexuak dira, eta zaila izaten da hardwarea (ibilgetu materiala) eta softwarea (ibilgetu ukiezina) bereiztea, horien izaera lausoa delako. Horregatik, desbideraketen analisia batera egitea egokiagoa dela uste dugu; izan ere, batzuetan gastuak partida bati edo beste bati egoztean erabakia faktoretatik edota kontratuetatik lortzen dugun informazioari esker hartzen da.

Zentzu horretan, Lantikek, BFAREN jarraibideak betez, aurrekontua gauzatzeari eta legezotasuna betetzeari buruzko txostena egiten du urtero. Txosten horretan, partida mugatzaile horien balizko desbideraketak aztertzen dira. Partida horien artean ibilgetu ukiezinarena dago. Txosten hori kanpoko kontu-auditoreei aurkeztu zaie. 2010eko urteko ekitaldiari buruz auditoreek atera zuten ondorioa izan zen LANTIKEK aurrekontu gaitetan indarrean dagoen legezotasuna bete zuela. Txostena erantzen dugu.

- 2010eko ekitaldian, Lantik, S.A.k BFAREN diru-laguntzak jaso ditu, bai inbertsioetarako, bai proiektuei egotzitako langileri gastuetarako ere, 6,5 milioi eurokoak. Aitzitik, inbertsioak eta langileri gastuak 4 milioi eurokoak izan dira; horregatik, Lantik S.A.k 2,5 milioi euro jaso ditu, 2011ko ekitaldian justifikatu direnak.

LANTIKen ALEGAZIOAK

Uste dugu urte anitzeko enkargu bati egiten diola erreferentzia (2008-2011), BISCAYTIK proiektua finantzatzeko, guztira 21.000.000 eurotan.

2010ean, proiektu horri esleitutako finantzazioa 6.505.000 eurokoa zen. Diru horretatik 4.010.852 euro erabili ziren, eta 2.494.148 euro daude aplikatzen.

2010eko irailaren 22an, zerga-kontsulta loteslea aurkeztu zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari (sarrera erregistroan 303891 zenbakia jaso zuena), eragiketa honen BEZari buruzko zenbait alderdi direla-eta, izaera eztabaidagarria delako:

1) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) jasanarazi behar duen, Bizkaiko Foru Aldundia ez diren hirugarrenei ematen dizkien zerbitzuengatik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2) Irlandan finkatutako sozietateak jasotzen dituen zerbitzuak zerga aplikatzeko lurraldean daudela ulertzen den ala ez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 69.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera.

3) Haien subjektu pasiboa den.

2011ko otsailaren 16an erantzuna bidali zitzaion, eta adierazi zen fakturatutako zenbateko osoari dagokion BEZaren auto-jasanarazpena egin behar zela.

Ordainketa berehala egin zen.

Proiektu estrategiko hau gauzatzeko konplexutasunak aldi batez ezberdintasunak sortzen ditu gastuen finantzazioaren eta sortzapenaren artean urte bakoitzean. Halere, ezberdintasun horiek proiektuaren orokortasunean berdintzen dira. Proiektua oraindik ez da bukatu.

III.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

III.2.1 KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK

Enpresa Sektore Publikoko erakunde eta sozietateek izapidetutako kontratazio espedienteak aztertu ditugu (ikusit A.15), eta ondoko hau azpimarratu nahi genuke:

Bizkailur, S.A.

- Etxebizitzak eraikitze eta beraien urbanizazioa egiteko lau espedientetan, Bizkailur, S.A.k 13 milioi eurotan (BEZ barne) adjudikatuak, pleguek ez dauzkate adjudikazio proposamenean erabiltzen diren azpi-irizpideak.

AZPIEGITURAKen ALEGAZIOAK

Txostenean aipatu diren lau jarduketan pleguetan ezarritako adjudikazio irizpideek eskaintzarik ekonomikoki abantailatsuena aukeratu nahi dute. Horrela, irizpide hauen arabera puntuazioa ematen da:

- Ekonomikoa (50 puntu). Puntuazioa formula matematiko batetik ateratzen da.
- Epea (5 puntu). Puntuazioa automatikoki finkatzen da.
- Proiektuaren auditoretza tekniko (35 puntu) eta proposamenik onenak (10 puntu).

Lizitatzailerek kontratatutako xedea zein mailatan ezagutzen duten adierazteko ezartzen dira azken irizpide horiek. Irizpide horiek ezin dira modu automatikoan ebaluatu, eta nolabait epaitu behar dira. Hau da, izaera juridiko zehaztugabeko kontzeptuak dira, eta horregatik, ezaugarrien arabera eta xedearekiko loturaren arabera baloratu behar dira. Ezaugarri horiek pleguetan aipatu dira (dokumentuen kalifikazioari buruzko klausulak), irizpideen eduki gisa. Nolanahi ere, balorazio irizpide automatiko edo matematikoei lehentasuna ematen zaie.

- *Balmasedako UR-1 Arla sektore industriala urbanizatzeko obrak, 2009. urtean Bizkailur, S.A.k adjudikatu zituen, 6,4 milioi eurotan, eta 458.398 euroko exekuzioa daukate. Obra hauek 2009ko irailaren 21az geroztik etenda daude; egun horretan Eusko Jaurlaritzaren jakinarazpen formala jaso zen, UR-1 Arla urbanizatzeko obrak eten behar zirela adieraziz, beharrezkoak diren lizentziak izapidetu ez zirelako.*

AZPIEGITURAKen ALEGAZIOAK

Bizkailur, S.A.U.k (gaur egun Azpiegiturak, S.A.U. denak) jarduera hauek egin zituen:

1. 2008ko maiatzaren 9an, Balmasedako Udaleko Osoko Bilkurak Balmasedako U.A.1 Arla sektorea urbanizatzeko obrak egiteko hirigintzako hitzarmena behin betiko onesteko erabakia hartu zuen. Hitzarmen horretan, Bizkailur, S.A.U.ri (gaur egun Azpiegiturak, S.A.U. denari) ahalmena eskuordetu zitzaion urbanizazio obrak egiteko, onetsitako urbanizazio proiektuaren arabera, eta obra horiek kontratatzeko.
2. Eskuordetze horrekin bat etorritik, lehiaketa publiko egokia deitu ondoren, aurkeztutako eskaintzak kontratazio mahaian egiaztatu eta baloratu ondoren, eta proposatutako txostena irakurrita, Bizkailurren Administrazio Kontseiluak erabaki zuen lehiaketa U.T.E. Uriola Arla enpresari adjudikatzea, eskaintzarik abantailatsuen zelakoan.
3. 2009ko martxoaren 11n Bizkailurrek URARI baimena eskatu zion obrak egiteko. Eskatera hori 2009ko martxoaren 25ean osatu zen, azterlan hidraulikoa emanez.
4. 2009ko uztailaren 17an urbanizazio obrak hasi ziren. URAk ez zuen erantzunik eman.
5. 2009ko irailaren 21ean Bizkailurrek URAREN bi jakinarazpen jaso zituen. Lehenengoan obrak eteteko eskatu zen, eta bigarrenean adierazi zen obren eskaerarako emandako dokumentazioak zenbait gabezia zituela, eta jabari publiko hidraulikoaren araudia aldarazi zuen urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera zuzendu behar zirela.
6. Badirudi araudi berriaren arabera azterlan hidraulikoak, aurreko araudiaren arabera aurkeztuak (2006ko martxoko data baitauka), zenbait datu falta dituela eta orain datu horiek "nahitaezkoak" direla. Bestalde, gabezia horiek zuzendu ondoren eta errege dekretu berria aplikatuz, poligonoa dagoen lurzorua ez da egokia hirigintzako garapenerako.

Obrak eten ziren, eta beren egoeraren akta egin zen, URA eten zen unean.

III.2.2 BESTE BATZUK

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioarekin lotuta atzemandako beste alderdi batzuk:

- *Garbiker, S.A.k, 2010eko ekitaldian, 1999 eta 2003. urteen artean sinatutako hamar kontratu dauzka. Kontratazio araudian aurreikusten den gehienezko epea beraz (lau urtekoa) gainditzen du. Kontratu horiekin lotutako gastua, 2010eko ekitaldian, 1,4 milioi eurokoa da (2,6 milioi euro 2009ko ekitaldian), eta honako*



hauei egiten die erreferentzia, nagusiki: pneumatikoak aldatzea eta birkautxuztatzea, kamioien eta makineriaren konponketak, ibilgailuen mantentze-lanak eta ponpak eta pinturen tratamendua. Sozietateak honelako kontratuak murrizten segitu behar du, 2010ean egin duenez.

GARBIKERren ALEGAZIOAK

HKEEren txostenak puntu honetan zenbait zerbitzu aipatzen ditu: garraio-elementu batzuen konponketa, ponpak eta pintura kentzea.

Zerbitzu horiei dagokienez, argitu beharra dago, batetik, ekitaldi honetan egon diren konponketa-beharrak heterogeneoak izan direla eta kasu batzuetan ezohikoak izan direla (beti ez dute ohiko higadurari erantzuteko helburua), eta, ondorioz, zerbitzu horien eragin ekonomikoa nekez balora zitekeen alde aurretik.

Bestetik, komeni da azpimarratzea ekoizleek enpresa homologatu gisa aipatu zituzten tailerretara jo dela, eta, ondorioz, produktua hoberen ezagutzen dutenak dira konponketak egiteko tailer horietara jotzea gomendatzen dutenak. Gainera, hori da aukerarik onena, berez beste zailtasun teknikorik egongo ez dela edo etorkizunean gehiegizko mantentze-lanak egotea ekiditeko berme handiagoak eskaintzen baitituzte.

Hala ere, Makineriaren eta Kamioien Konponketak egiteko, pneumatikoak aldatu eta birkautxuztatzeke, ibilgailuen mantentze-lanez eta ponpez arduratzeko eta pinturak kentzeko Lehiaketaren Plegu Teknikoak eta Administratiboak idatzi dira. GARBIKERren asmoa da aurten argitaratzea.

- *Zerrenda honetan aipatzen diren sozietateek zenbait kontratazio zuzenean egin dituzte zenbateko horietan barne hartutako kontzeptuak homogeneousak direla edo horien bolumena ikusirik eskaintza-eskaerak egin ahal ziren, nahiz eta prezio unitarioenak izan, erosketa-aurreikuspenak ekitaldiaren hasieran zehazki ezagutzen ez baldin baziren.*

		<i>Mila euro</i>
<i>SOZIETATEA</i>	<i>Kontratua</i>	
<i>Azpiegiturak, S.A.</i>	<i>Telefonia.....</i>	<i>84</i>
<i>Basalan, S.A.</i>	<i>Makina txikiak eta ordezeko piezak hornitzea (10 hirugarren).....</i>	<i>368</i>
	<i>Erregaiaren hornidura (2 hirugarren).....</i>	<i>132</i>
	<i>Landareen hornikuntza.....</i>	<i>39</i>
	<i>Produktu fitosanitarioen hornidura.....</i>	<i>32</i>
<i>Lantik, S.A.</i>	<i>Lege aholkularitza.....</i>	<i>52</i>
	<i>Lege aholkularitza.....</i>	<i>31</i>
	<i>Aurre-erretiratze planaren azterlana.....</i>	<i>29</i>
<i>Interbiak, S.A.</i>	<i>Bidesariak itzultzeko txostena egitea.....</i>	<i>56</i>
	<i>Komunikazio zerbitzuak.....</i>	<i>112</i>



AZPIEGITURAKen ALEGAZIOAK

Azpiegitura zenak instalatuta zeukan sistema informatikoa zenbait zerbitzarik osatzen zuten. Zerbitzari horiek Azpiegituraren Egoitza Nagusian zeuden. Zerbitzari horietara elkartegi guztien bidez irits zitekeen, Net-Lan baten bidez edo datu-sare propio baten bidez, aplikazio, fitxategi eta ekipo guztiak partekatzeko. Zentro guztietan instalatutako tele-zaintza zerbitzuetarako ere, linea telefonikoak (ADSL, RSDI etab) instalatzea beharrezkoa da, irudiak transmititzeko prestatuta.

Elkartegiak, kasu batzuetan, hiriguneetatik urruti daude. Horrek arazoak sortzen ditu telekomunikazioetarako azpiegiturak kontratatzeke orduan, batez ere datuak edo irudiak bidaltzeko lineei buruz hitz egiten ari garenean. Lehen zeuden telefonia operadoreetatik bakar batek bermatzen zuen estaldura Azpiegituraren mendeko zentroen %100ean zerbitzu ona jasotzeko behar zen teknologiarekin. Horregatik, kontratazioa telefoniako operadore horrekin zuzenean egiten zen.

BASALANen ALEGAZIOAK

Makina txikiak eta ordezeko piezak hornitzea (10 hirugarren). 368.000 euro.

Horniduren eta ordezeko piezen erosketa eragin-eremuan dauden enpresen arabera banatzen da, eta zehazki, ordezeko piezak edo zerbitzu ofiziala izateko betebeharraren arabera, segurtasun, eraginkortasun, fidagarritasun eta berme arrazoiengatik.

Erregaiaren hornidura (2 hirugarren). 132.000 euro.

Enpresa honek bi base edo lan unitate dauzka, Lezaman eta Zallan. Makinak eta ibilgailuak dauzka, Bizkaiko Foru Aldundiari zerbitzu emateko. Haren jarduketa eremua Ondarroatik Urduña eta Lanestosara doa. Gasolio horniduraren beharra dela medio, larrialdietarako, basoetako suteetarako eta abar, beharizanen arabera, jarduten duen foru erakunde honek gasolioa erosi behar du eragin-eremuetan dauden zerbitzuguneetan, kontrola, segurtasuna eta errentagarritasuna bermatzen dituztenak. Petrolio-saltzaileek ia monopolioan jarduten dute, prezioak antzekoak baitira.

Landareen hornikuntza. 39.000 euro.

Ondasun publikoen ekipamendurako eta beste erakunde batzuentzako (foru erakundeak, udalak) zenbait landare erosteko hornidurak dira. Aniztasun eta zehaztasun handiak daudenez gero, beharrezkoa da landareak sektorean espezializatutako zenbait mintegi eta enpresatan erostea, betiere kontratazio mugak errespetatuz.

Produktu fitosanitarioen hornidura. 32.000 euro.

Funtsean cortaderia selloana landarea (panpa-lezka) desagerrarazteko tratamenduari aurre egitea da asmoa. Landare inbaditzaile horren desagertzea 2010eko ekitaldiko jardueraren portzentaje handi bat hartu du. Pinu-beldarraren aurkako tratamendua ere ordaindu behar



da. Produktu egokia oso zehatza da. Horrek hornitzaile homologatu eta gaituen kopurua mugatzen du, enpresa horrek produktuen homologazioa eta jarduera horiek egingo duten langileek akreditazio profesionala exijitzen dituelako.

LANTIKEN ALEGAZIOAK

HKEEK aurkitu duen eragozpena egindako kontratazioen izaera homogeneoa da. Modu orokor eta zehaztugabeen jarduera substantibo eta zehatz pilo bat izendatu ditu. Jarduera horiek oso teknikoak dira eta arazorik gabe bereizi ahal dira batzuk besteetatik, haien kudeaketa eta izapidea banan-banan egiteko moduan, Lantikek egin duenez.

Jarduera juridikoa, izaera orokorrarekin hala izendatzen dena, oso diziplina ezberdinen multzoa da. Jarduera horiek oso konplexuak dira eta oso ezberdinak batzuk besteengandik. Horregatik, ez da egokia denak elkartzea izendapen orokor baten pean, errealitatea itxuraldatuko litzatekeelako, ez bailitzateke gauzen benetako izaera kontuan hartuko.

Lan-arloko epaitegian legelari batek egiten duen defentsa juridikoak ez du zerikusirik aseguru-polizak kontratatzekeko administrazio pleguak egitearekin, esate baterako. Ez du batere zerikusirik estaldura-mailen kostuen azterketak kobrantza-sekuentzien banakako planen xehetasunekin, nahiz eta bi lanak enpresa berberak egin.

Zeregin horiek Epaitegiak deskribatzen duen orokortasunaz izendatzean, ondorio okerra atara ahal dugu. Halere, lan horien azalpenak, fakturen xehetasunetan adierazten denez, ezberdintasunak ulertzen laguntzen du. Adiskidetze papeleten analisia, atzera egiteko idatzien prestaketa, bisitaldiaren egintzara joatea... ez dute inolako zerikusirik aholkularitza orokorrarekin edo kontratazioko administrazio pleguekin.

Epaitegiak berak egindako justifikazioaren modu berean, aurkako zentzuan, gure erakundearen jarduna justifikatzen da. Gertatzea aurreikusten ez dena ezin da erostea aurreikusi. Jazotzeko unean bertan bakarrik ezagutzen dugunarekin ezinezkoa da aurreikuspenak egitea edo ondorioei aurrea hartzea. Auzietan parte hartzea ohikoa ez bada, nola aurreikusi auziak gertatuko direnik? Zein tamainakoak, ze preziotan?

Erabat ezinezkoa da ohikoa ez dena irudikatzea. Inork ezin dezake aurreratu gertatuko dena, horren berri ez badakigu. Beharko dena ezin da kontratatu, beharko dugula ez baldin badakigu, ezta kostua aleko prezioetan kalkulatzen badugu ere, epaitegiak dioen bezala.

Gauzak gertatu ondoren erraza da ondorioak ateratzea, gauzak gertatu ahala ateratzen diren ondorioetatik ezberdinak. Baina gauzak gertatu ahala ikusten direnean, jarduteko modu bakarria Lantikek izandakoa da.

Horregatik guztiagatik, Lantikek uste du HKEEK egiten dituen gogoetak ez datozela bat errealitatearekin, egitateak ez direlako homogeneoak, eta ezinezkoa delako aurreikusi eta irudikatu ezin diren beharrianak aurreratu, ezta aleko prezioetan eskaintzak eginez ere, epaitegiak gomendatu duenez.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ITERBIAK en ALEGAZIOAK

Lehenengo atalean txosten juridiko batzuk aipatzen dira, Interbiak kudeatzen dituen autobideen bidesariak arautzeari buruzko epaiei buruzkoak. Haien kontratazioa egiterakoan, legearen betekizunak bete ziren.

Komunikazio zerbitzuei dagokienez, 112 mila euroko gastuarekin, esan behar dugu gastu horiek HKEEk gomendatzen duen moduan izapidetu zirela, hau da, aldez aurretik eskaintzak eskatuz, eskuratze aurreikuspenak ez zirenean ekitaldiaren hasieran jakinak.

Azpiegitura berriak eraikitzeko proiektuen zenbait azalpen dira. Azalpen horiek ez zeuden aldez aurretik programaturik ez aurreikusirik, eta udalek eskatu ahala egin ziren. Kasu bakoitzerako komunikazioaren osagaiak pertsonalizatu behar izan ziren.

III.3 LANGILEEN GASTUAK

Antzinatasuna

- *Ondoko enpresa-erakunde publikoak eta foru merkataritza-sozietateek ez diote soldata-murrizpena aplikatu antzinatasunari: Bizkaiko Tutoretza Erakundea, Aparkabisa, S.A., Azpiegiturak, S.A., Basalan, S.A., Beaz, S.A., eta Garbiker, S.A.*

ERAKUNDE GUZTIENTZAKO ALEGAZIOA

1. Antzinatasuna legezko zenbatekoetan ordaindu behar izan zen, hau da, zenbateko "beheratuetan". (Beharpen hori hain handia ez izateko, hiru urtekoen batezbestekoa modu mailakatuan zen zenbatekoa kalkulatu zen (5 hiru urteko kalkulatu ziren) eta hiru urtekoaren legezko zenbatekoa ordaintzen genuenez (hor dagoeneko beherapena zegoen), mailaka egin behar zen deskontutik kendu genuen. Horrela, mailaka, ordura arte postuaren prezioetik kendu beharreko zenbatekoa atera zen, eta horri bere taldeko 5 hiru urtekoen beherapenaren zenbatekoa kendu zitzaion).
2. 2010ean eta 2011n antzinatasunari dagozkion legezko zenbatekoak ordaindu dira.
3. Lan kontratudunei eta funtzionarioei berdin-berdin aplikatu behar zaie.

Horrekin bat etorriz,

Defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak hartzeko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretu-Legeak, lehenengo artikuluan, EAOei 2010erako idazkuntza berria ematen die eta ondokoa agintzen du:

2010eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra arte, soldaten eta hiru urtekoen taulak hauek dira:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Taldea/Azpitaldea 7/2007 Legea	Soldata – eurotan	Hiru urtekoak – eurotan
A1	1.161,30	44,65
A2	985,59	35,73
B.....	855,37	31,14
C1	734,71	26,84
C2	600,75	17,94
E (30/1984 Legea) eta elkarte profesionalak (7/2007 Legea).....	548,47	13,47

2010eko ekainaren 1etik aurrera taula honelakoa izango litzateke:

Taldea/Azpitaldea 7/2007 Legea	Soldata – eurotan	Hiru urtekoak – eurotan
A1	1.109,05	42,65
A2	958,98	34,77
B.....	838,27	30,52
C1	720,02	26,31
C2	599,25	17,90
E (30/1984 Legea) eta elkarte profesionalak (7/2007 Legea).....	548,47	13,47

Ogasuneko eta Aurrekontuen Estatu Idazkaritzaren 2010eko maiatzaren 25eko ebazpenak jarraibideak eman zituen abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuaren barruan dauden funtzionarioen nominak direla-eta, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen laugarren azken xedapenaren terminoetan, eta 2010eko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen artikuluko egokietan aipatzen diren langileentzako ordainsarien zenbatekoak eguneratu zituen, 2010eko ekainaren lehen ondorioak izateko. Ebazpen horrek hauixe dakar IV. eranskinean:

IV. ERANSKINA.

Abuztuaren 2ko 30/1984 Legean ezarritako ordainsari-araubidea aplikatu behar zaien lanpostuak dauzkaten funtzionarioak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen laugarren azken xedapenaren terminoetan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

OINARRIZKO ORDAINSARIAK

Saikapen taldea / azpitaldea	Hileko zenbatekoa (eurotan), <u>uztaileko / abenduko ordainketa</u> <u>arruntetan</u>		<u>Uztaileko aparteko</u> ordainketa		<u>Abenduko aparteko</u> ordainketa	
	Soldata	Hirurtekoa	Soldata	Hirurtekoa	Soldata	Hirurtek.
A1	1.109,05	42,65	1.161,30	44,65	623,62	23,98
A2	958,98	34,77	985,59	35,73	662,32	24,02
B	838,27	30,52	855,37	31,14	708,25	25,79
C1	720,02	26,31	734,71	26,84	608,34	22,23
C2	599,25	17,90	600,75	17,94	592,95	17,71
E (30/1984 Legea) eta elkarte profesionalak (7/2007 Legea)	548,47	13,47	548,47	13,47	548,47	13,47

Horrenbestez, hiru urtekoaren prezioa 2010eko ekainetik aurrera “beheratu” zen.

- BFAn honela egin zen:

Soldata-kostua beheratzeko taulak egin zirenean, hiru urtekoaren prezioaren murrizpena kontuan izan zen. Horregatik, ordiansari-maila bakoitzaren beherakada osotik (%0,87tik %2,86ra, mailakatuta) hiru urtekoaren prezioaren beherakadak izango lukeen efektua (batez beste 5 hiru urtekoa dela jotzen dena) kenduz. Hau da, A taldearentzat:

$44,65 - 42,65 = 2$ euro, 2 euro * 5 hiru urteko * 7 hilabete (uztailetik abendura, gehi abenduko apartekoa) = 70 euro

$44,65 - 23,98$ (antzinatasuna aparteko ordainketan) = $20,65$ euro, $20,65$ euro * 5 hiru urteko = $103,35$ euro

Guztira, antzinatasunagatik beherakada A taldearentzat eta 5 hiru urtekorengatik hau litzateke: $70 + 103,35 = 173,35$ euro.

Horrela, egindako soldata jaitsieraren taulan, adibidez, 1751 lanposturako $65,22$ euroko beherapena zegoenez, nominan agertzen zena taulako beherakadaren gehi pertsona bakoitzaren antzinatasunaren beherakadaren batura zen.

- Gainera, MAIATZAREN 20ko 8/2010 LEDari BURUZKO SOLDATA-NEURRIETAN, hauxe ezarri zen 3. atalean:

“3.- Bizkaiko Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomoetako eta foru enpresa-sektore publikoko lan-kontratudun langileei soldata-murrizketa homogenea aplikatuko zaie, aurreko puntuan aipatutako funtzionarioenaren baliokidea dena”³.

³

Prozesu hau ez zaio arestian aipatutako sozietateetan antzinatasun kontzeptuari aplikatu.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GARBIKER ERAKUNDEAREN ALEGAZIOAK

GARBIKER sozietate publikoa da eta haren kapitala osoki dagokio BFari, baina merkataritza-sozietate bat da, izaera juridiko propioa du eta autonomia dauka bere jardura antolatzeke, baita bere langileekiko harremanak antolatzeke ere (sozietate publikoak Euskal Funtzio Publikoaren Legearen aplikazio-esparrutik kanpo daude, eta, ondorioz, GARBIKER sozietatearen estatutuek edo barne-arauren batek kontrakoa ezartzen badute izan ezik, GARBIKERren eta bere langileen harremanei aplikatzen zaizkien arauak Lan-arloko Zuzenbidekoak dira).

Lan-arloko Zuzenbideak eskaintzen dituen arauketa-aukeren barruan, GARBIKERrek BFaren araudiarekin bat datorren arauketa bat ezarri du erakundearen lan-baldintzak Aldundiko langileriari aplikatzen zaizkionetara pixkanaka parekatzen joateko.

Ondorioz, sozietate autonomoa eta independentea izanik (bere aplikazio-esparruak ezartzen dituen muga legalekin), GARBIKERrek bere langileriaren lan-baldintzak eta ordainsariak arautzeko askatasuna du, eta derrigorrez negoziatu behar ditu bere lan-harremanak legeak bermatutako gutxieneko eskubideen esparruan, baina ez dute BFAk bere langileriari aplikatzen dizkion baldintzen berdinak izan behar derrigorrez.

“Antzinatasuna” ordainsari-osagarriaren arauketa Hitzarmen Kolektiboko 15. artikuluan dago jasota (2009ko uztailaren 3a, BAO 125 zenbakia):

“Antzinatasuna: Soldata tauletan adierazitako baloreak bosturtekotan ordainduko dira, hamalau hilerokotan banaturik, langile guztiak hiru biurtekotan irabazten egon ondoren, aipatutako tauletan adierazitako baloreen arabera.

- *Antzinatasun kontzeptuari aplikatu zaizkion soldata-murrizpenak, lehen komentatuak, Aparkabisa, S.A.n antzinatasun kontzeptuaz egin diren aplikazioei batuz gero, 2007ko soldataren %3,5 da antzinatasun kontzeptua hiru urteko bakoitzarentzat. Eta Garbiker, S.A.n bi urtekoak ordaintzen dira (gehienez hiru) eta bost urtekoak ere bai (mugarik gabe). Horregatik guztiagatik, enpresa-sektore publikoan aplikatu behar diren ordainsariak arautzea eta homogeneizatzea gomendagarria da.*

APARKABISAren ALEGAZIOAK

APARKABISA sozietatearen kapitala honako hauen ekarpenek osatzen dute: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, EUSKO JAURLARITZA, BARAKALDOKO UDALA, TRAPAGAKO UDALA ETA BILBOKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA NABIGAZIOKO GANBERA. Sozietateak hasiera-hasieratik egin ditu Lankidetzak-hitzarmenak Administrazio Kontseiluaren onespenerekin, eta kontseilu hori aipatutako erakundeetako ordezkariak osatzen dute.

2007ko ekitaldian Hitzarmen Kolektibo bat sinatu zen urtebeterako, eta, bertan, aurreko ekitaldietan bezala, honakoa ezartzen zen: **“antzinatasuna hirurtekoka ordainduko da eta Oinarrizko Soldataren %3,5eko kopurukoa izango da”**.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Halere, hurrengo hitzarmenean, 2008/2009/ 2010/2011 urteetarako indarrean eta ezarria, antzinasuna 2007ko zenbateko berean ordaindu da. Antzinasuna aipatutako ekitaldietarako izoztuz gero, hurrengo hitzarmenetan antzinasuna Bizkaiko Foru Aldundiko langileenarekin parekatu beharko da.

Beste alderdi batzuk

- *Basalan, S.A. eta Garbiker, S.A. sozietateek 57 eta 16 behin-behineko langile kontratatu dituzte 2010ean, hurrenez hurren, aurreko ekitaldietan kanpoko enpresa batek egindako hautaketa-prozesu batzuen bitartez egindako lan-poltsa batzuetara joz. Proposatutako zerrendek ez dute balorazio-ordenarik zehazten, baina langileriaren kontratazioan errotazioak egin direla ikusten da. Hala eta guztiz ere, komenigarria izango litzateke zerrendak baloratzeari langileriaren kontratazioan ezarritako printzipioak betetzen direla ziurtatzeko.*

BASALAN ERAKUNDEAREN ALEGAZIOAK

Behin-behineko kontratazioetarako lan-poltsa bat egitearekin egindako alegazioen eskaerari buruz jakinarazi behar dizuegu lan-poltsa langileak aukeratzeko enpresek egiten dutela, Basalanek aukeratutako alde aurretiko betekizunen arabera. Ez dago puntuaziorik ez lehentasunik, baizik eta baldintzak betetze hutsa. Pertsona bakoitzaren kontratazioa aurkeztutako zerrendekin egiten da, ordena alfabetikoan, eta hautagai bakoitza prest dagoen edo ez kontuan izanik. Prest ez badago (edozein arrazoi dela tarteko), hurrengo hautagaia kontratatzen da.



ABREVIATURAS

BAI	Agencia de Innovación de Bizkaia, S.A.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia
ITB	Instituto Tutelar de Bizkaia
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido
LAE	Loterías y Apuestas del Estado
LCSP	Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público
NF	Norma Foral
PCAP	Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares
THB	Territorio Histórico de Bizkaia
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante, TVCP), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo para 2011, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia (en adelante, THB) correspondiente al ejercicio 2010.

La Cuenta General del THB se forma mediante las cuentas de la Diputación Foral de Bizkaia (en adelante, DFB), de los organismos autónomos forales, de las entidades públicas empresariales forales y de las sociedades mercantiles forales. Partiendo de la clasificación del sector público foral realizada en la NF 5/2006, General Presupuestaria, en sector público administrativo (DFB y organismos autónomos forales) y sector público empresarial (entidades públicas empresariales forales y sociedades mercantiles forales), el TVCP ha estructurado el informe de fiscalización en dos tomos: I para el sector público administrativo y II para el sector público empresarial.

Este tomo del informe de fiscalización de la Cuenta General del THB- Sector Público Empresarial abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestarias, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, compras y servicios, concesión de subvenciones y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta General se elabora de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación. Todos los entes y sociedades integrantes del Sector Empresarial han sometido sus cuentas a informes de auditoría financiera y de cumplimiento presupuestario realizados por firmas externas, que han sido tenidos en cuenta por este TVCP para la realización del trabajo.
- Análisis financiero de la situación económica del sector público empresarial.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre el sistema de control interno y procedimientos de gestión”.

El Sector Público Empresarial del THB está formado por:

- Las entidades públicas empresariales:
 - Delegación Comercial en Bizkaia de Loterías y Apuestas del Estado (en adelante, LAE): lleva la delegación en Bizkaia del Organismo Nacional de Loterías y Apuestas del Estado.
 - Instituto Tutelar de Bizkaia: encargado de ejercer la tutela de mayores incapacitados legalmente, residentes en el THB, y la administración de los bienes de los menores tutelados por la DFB.

- Las Sociedades mercantiles forales:

Sociedad	% Participación	Objeto social
1. Aparkabisa, S.A.	79,48	Centro de transportes y aparcamiento de camiones.
2. Azpiegiturak, S.A.	100	Proyectar, construir, conservar y explotar obras públicas de infraestructuras de todo tipo.
3. Basalan, S.A.	100	Trabajos forestales y de conservación de la naturaleza.
4. Beaz, S.A.	100	Desarrollar y fomentar la competitividad en las empresas, para hacer de Bizkaia un territorio innovador, creativo, dinámico y emprendedor.
5. Palacio Euskalduna, S.A.	100	Construcción y gestión del palacio de música y de congresos.
6. Garbiker, S.A.	100	Tratamiento de residuos sólidos.
7. Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, S.A. (Interbiak)	100	Realización de estudios y proyectos, construcción y conservación de infraestructuras viarias.
8. Lantik, S.A.	100	Servicios informáticos de la administración foral.
9. Sala de Exposiciones Rekalde, S.L.	100	Gestión de la sala de exposiciones y difusión del arte.
10. Seed Capital de Bizkaia, S.A.	50,64	Gestión de patrimonios y fondos de capital-riesgo.
11. Zugaztel, S.A.	100	Grabación, escaneo y call center.

Azpiegiturak, S.A. es una Sociedad Pública Unipersonal de la DFB que comienza su andadura el 6 de julio de 2010, fruto de la fusión y extinción de las siguientes sociedades:

Sociedad	% Participación	Objeto social
Azpiegitura, S.A.	100	Creación y gestión de centros de empresas.
Bideak-Bizkaiko Bideak, S.A.	100	Proyectar, construir, conservar y explotar infraestructuras.
Bizkailur, S.A.	100	Promoción de suelo industrial, vivienda y servicios.
Kirolgintzan, S.A.	100	Planificar, elaborar proyectos, construir, mantener y explotar infraestructuras destinadas a actividades de carácter deportivo, de esparcimiento o culturales.

El 6 de julio de 2010 se ha procedido a la aprobación por las respectivas juntas generales de la fusión por absorción con efectos desde 31 de diciembre de 2009 de las sociedades:



Agencia de Innovación de Bizkaia, S.A. (BAI) y Beaz, S.A., siendo Beaz, S.A. la sociedad absorbente.

Mediante NF 5/2010, de 22 de diciembre, se creó la entidad privada empresarial foral denominada BizkaiKOA como entidad de gestión de museos. En cumplimiento también de lo previsto en la citada NF, el 1 de julio de 2011 se disolvió la empresa foral Sala de Exposiciones Rekalde, S.L.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

PERSONAL

- Las entidades públicas empresariales y sociedades públicas forales contratan la selección de personal fijo con empresas especializadas que dan publicidad a la convocatoria y proponen una lista final de candidatos ordenada por puntos. Las sociedades no exigen a las empresas contratadas la aportación de documentación que permita la verificación de los cumplimientos de igualdad, mérito y capacidad en la selección de dichos candidatos, por lo que no se ha podido verificar el cumplimiento de dichos principios. Las contrataciones de personal fijo realizadas en el ejercicio 2010 son:

SOCIEDAD	Trabajadores
Azpiegitura, S.A.	1
Beaz, S.A.	1
Garbiker, S.A.	(*)9
Lantik, S.A.	1

(*): 4 son trabajadores fijos a tiempo parcial

CONTRATACIÓN DE BIENES Y SERVICIOS

Kirolgintzan, S.A.

- La Sociedad ha adquirido directamente un videomarcador para el polideportivo de Miribilla por importe de 377.000 euros a una sociedad deportiva que desarrolla su actividad en el citado recinto, incumpliendo los principios de publicidad y concurrencia.

Lantik, S.A.

- La Sociedad ha realizado obras de reforma de la planta baja y de la primera planta del edificio en el que se ubica su sede por un importe total de 230.734 euros, contratados con ocho terceros, fraccionando indebidamente el objeto del contrato e incumpliendo lo establecido en el artículo 74.2 de la LCSP.

En opinión de este Tribunal, las entidades integrantes del Sector Público Empresarial del Territorio Histórico de Bizkaia, excepto por los incumplimientos anteriores, han realizado en el ejercicio 2010, su actividad económico-financiera de acuerdo con la normativa vigente.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS

Azpiegiturak, S.A.

1. La memoria de la Sociedad no informa sobre las incertidumbres que afectan a los siguientes activos del Balance de Situación:
 - Existencias valoradas en 138,2 millones de euros cuya realización está afectada por la crisis del sector de la construcción y sector inmobiliario (ver Anexo A.5.1).
 - Inversiones inmobiliarias adquiridas por 15 millones de euros en 2006 y alquiladas en el mismo momento de su adquisición al vendedor por importe de un euro mensual, condicionado al cumplimiento de determinadas condiciones y con restricciones a la disponibilidad para la materialización de los activos (ver A.2.2).
 - Créditos a largo plazo concedidos a empresas del grupo y asociadas con un saldo al cierre del ejercicio 2010 de 7,3 millones de euros y sobre los que las expectativas de recuperación no son favorables (ver A.3.1). También se han prestado avales en ejercicios anteriores a favor de empresas del grupo cuyo saldo al cierre del ejercicio 2010 es de 4,1 millones de euros y sobre los que existe riesgo de ejecución (ver Anexo A.11).
